

## Kultura

Gaur estreinatuko dute Durangoko Karrika antzerki taldeak eta Bartolome Ertzilla musika eskolako soka taldeak 'Deshakespeareazioa' obra > 13



## Katalunian, erabaki eta eraiki guran

Zer gertatuko da domekan? Erreferenduma egin ala ez, egun garrantzitsua izan daiteke herri horren historian. Han bizi diren Durangaldeko zenbait lagunek prozesuaren gaineko iritzia eman diote ANBOTOri. Horrez gainera, katalanen aktibazioa bultzatu duen ANC elkartearen izenean berba egin dio Begotxu Olaizolak. > 10-12



Argazkia: Josep Maria Muntaner. NacióDigital

**ALKIMAX**  
Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua Industriagunea, 71C · Tel.: 946 824 550  
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 · Tel.: 946 271 310  
[alkimax@alkimax.net](mailto:alkimax@alkimax.net)  
[www.alkimax.net](http://www.alkimax.net)



PRODUKTU BERRIAK!



ARE-MAKINA



SASIAK GARBITZEKO  
MAKINA HORZDUNA



MINIHONDEATZAILEA 1000 KG  
ZABALERA 9,60



BELDAR-MINI  
DUMPERRA

### Durango > 4

Fumbarri enpresaren inguruan airearen kalitatea neurtuko dute

### Abadiño > 9

Rothenberger-eko langileak greban daude hitzarmena dela eta

### Zornotza > 6

Gazte euskaldunen koreografia japoniarrak Mangamoren ikusgai

### Durango > 5

41 modelo amateurrek parte hartuko dute Fashion Gauan

## Herririk herri

# Hainbat saltsatako perrexilak, adinean gorantz baina aktibo

Aktibisten erreportaje sortako azken gonbidatuak dira Lersundi, Barrena eta Azkorbebeitia

**> ERREPORTAJEA** M Onaindia  
Gaztetasunak adinik ez duen ustearen adibide nabarmenak dira. Durangaldeko zenbait mugimendutako sortzaile eta militante historikoak dira, eta oraindik ere lan boluntarioan jarraitzen dute, jubilario saioan sartuta daudenean. Kainabera elkartean taldeko kide da Juan Mari Lersundi Gazetabeitia (Elorrio, 1954), Durango Andereakeko eta euskalgintzako aktibista da Marisa Barrena Larruzea (Zornotza, 1951), eta Gerediagako ohorezko bazkide da Jose Antonio Azkorbebeitia Agirre (Abadiño, 1949).

Baimena ematen badidazue, esango nuke zahartzaroen sartzen zabilatzatela. Zelakoa da etapa hori?

**Marisa:** Egia esan, lanean asko disfrutatu dut, bete egin nau. Orain beste etapa bat da, desberdina, lasaiagoa. Aktibo bizitzaren saiatzen naiz. Zahartzaroen diozu, baina oraindik ez naiz zahar sentitzen, ez zait buruan sartu. Agian osasuna dudalako izango da ere. Hori bai, adina hor dago eta ikasi egin behar da zahartzen. Orain, lehen ez neukan astia daukat, irakurtzeko edo idazteko ere bai, eta horrek ere betetzen nau.

**Jose Antonio:** Askotan, pentsatzen dut betiko moduan nabiltela, etapa hori ez dudala pasatu.

Nire buruan ez daude 68 urte. Noizean behin adinean pentsatzen duzu eta, joño! Baina lanean berdin-berdin jarraitzen dugu! Osasunetik eskas ibili naiz sei bat urtean, erreumagaz. Baina joan da eta orain 26 urte gazte bezala sentitzen naiz.

**Marisa:** Badakizu gauza batzuk ezin dituzula lehengo moduan egin, parranda, adibidez. Baina, nire kasuan behintzat, horrek eginda daude, eta beste batzuk gustura egiten ditut orain. **Juan Mari:** Lehen, igual, mendi altuetara joaten zinen, eta orain bajutxuagoetara, baina bazoaz joan. Ni ere pozik ibili izan naiz lanean, baina orain neuretzat ere hartu dut denbora. Martxoetik hona 17 liburu irakurri ditut. Gaur zer dago egiteko? Egunean bizi zara. Gainera, bidaiatzeko gogoia daukagu. Positiboa izatea garrantzitsua da, eta transmititu egiten da.

**Astia baduzue, baina orain bilobak zaintzea ere tokatu zaitzue, eta hori zuen beste lanekin bateratu behar...**

**Jose Antonio:** Gaur egun ofizio berri baten jabe gara: astitaren ofizioa hartuta daukat. Ia egunero, umeak eskolara eramane eta ekartzen ditut, eta bazkaria eman ere bai.

**Marisa:** Lehen hainbeste ordu beharrean eman eta gero beste gauza batzuk egiten genituen. Orain, osterara, arineketan ibil-



Ekzerretik hasita, Lersundi, Barrena eta Azkorbebeitia.

tzen gara; aitiba edo amama izateak ere ematen ditu bere zeregin txoak, nahiz eta lotura handirik ekarri ez. Gainera, asko gozaten dut umeekin. Egia esan, denbora gehiago izaten dugu, baina, nire kasuan, arlo gehiagotan sartu naiz, perrexila izatea gustatzen zait [barrez]. Igual akatsa da ezetz esaten ez jakitea. **Juan Mari:** Bai. Gurasoek esku zabalak izaten erakutsi ziguten, etxeko ateak zabalik edukitzen,

eta batzuetan ez dugu ezetz esaten. Sarritan, albokoari denbora kendu izan diogu, eta hori ere landu behar da. Ez naiz aitiba, baina nire inguruan ikusten ditut batzuen egoerak.

**Zer ematen dizue boluntario edo militante izateak?**

**Marisa:** Ez dut imajinatzen bizitza horrelako saltsetan ibili barrik. Euskal Herri euskaldun eta librea da nire ametsa, pare-

“**Zahartzaroen diozu, baina oraindik ez naiz zahar sentitzen, ez zait buruan sartu**”

**anboto**   
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2017ko irailaren 29a  
15. urtea - 691. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
11.500 ale



**Zuzendaria:** Jone Guenetxea  
Arrinda. **Erredakzio burua:** Markel Onaindia Txabarri. **Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta. **Administrazioa:** Miren Abasolo Txabarri. **Publizitatea:** Itxaso Martínez de Arenaza Yarza eta Nagore Txintxurreta Isasi. **Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gendiaga, Itsaso Esteban Urriaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, eta Maialen Zuazubiskar Gallastegi. **Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa. **Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Lersundi, Kainaberako lagunekin.



Barrena, Ibilaldiko eragile moreen talde argazki batean.



Azkorbebeitia, artzain-txakurren txapelketan.

“  
Egia esan,  
gazteekin ikasi  
egiten dugu,  
energia  
jasotzen dugu”

kidea ere bai askatasun horren baitan. Aktibismoak zer ematen duen? Bizipoza, energia, lagunak... Bizitzaren parte gara, begien aurrean pasiboki pasatzen ikusi barik. Gure erritmoak eta astirozten dira, baina ilusioa mantentzen dut. Helburu horiek, guk ez bada, hurrengoek lortuko dituzten esperantzaz. Belaunaldi berriak badatozela ikusteak poza ematen dit.

**Jose Antonio:** Ez dut ezagutu militantzia bako bizimodurik. Gerediagak antolatzen duen Euskal Herriko artzain-txakur txapelketa pasatu berri da, 51. edizioa. Bada, lehenengoan ere hantxe izan nintzen laguntzen.

**Juan Mari:** Kalkutako Teresak zioen zerbitzeko bizi ez denak ez duela balio bizitzeko. Zu, familia, herria eta aberria. Helbururik barik, gora begira bizitzea tristeza izango litzateke.

**Zelan ikusten dituzue gaur egungo gazteak?**

**Jose Antonio:** Militantzia moteldu egin da akaso. Aldatu ere bai: guk genituen kezak ez dituzte. Jaietan ere, lau katu agertzen dira. Agian hobeto lan egingo dute, hori ez dakit.

**Juan Mari:** Gazteak badatoz, baina ardura hartzeko itxaroten gaude, gu laguntzaile izateko. Gu betirako ez gaude eta.

**Marisa:** Mugimendu feministan igual desberdina da. Gazteek indarra dute, formazio handia, eta eurekin bat eginda gaude plataforma feministan. Egia esan, eurekin ikasi egiten dugu, energia jasotzen dugu. Gainera, uste dut eurek ere gure esperientzia kontuan hartzen dutela.

**Juan Mari:** Nire alaba ere badabil mugimendu feministan, eta guraso lez gustura sentitzen naiz. Gizartea oso matxista izan da, eta badoa aldatzen, gazteek indar handia dute eta.

**Jose Antonio:** Bestalde, militantziarik egon ez balitz ez legoke gaur egungo egoera soziala Euskal Herrian.

**Juan Mari:** Euskararen gaian, esaterako, gaueko eskoletan eta zenbat jende ibili zineten!

Orain badaude Berbalagun eta beste hainbat baliabide.

**Marisa:** Lehen pentsaezina zen oraingo moduko euskaltegiak edukitzea. Jesuitetan hasi ginen, zelako baldintzatan, eta eskerrak eurek lokala utzi zigutela! Gauza asko hobetu dira. Baina, hala ere, euskalgintzak badu lana, erabilera bultzatu behar da adibidez.

**Nostalgia al da hori?**

**Jose Antonio:** Baliteke nostagiokoak izatea, eta horregatik ikusten ditugu erritmo eta pentsakera desberdinak.

**Marisa:** Ez naiz nostalgikoa. Baina uste dut ona dela atzera begiratzea eta gazteei kontatzea zelako oztopoak gainditu genituen. Esango nuke sarritan gure historia ez dugula kontatu; oraintsu kanpoan kontatu dut [Txilen egon da maputxeei gau eskolen esperientzia azaltzen] eta harriritu geratu ziren. Ohartu nintzen nire alabei eta ingurukoie ere ez diedala hori kontatu. Baina, Josean, orduan ere ez zen erraza izaten jendea erakartzea, ezta? Sokagaz ibiltzen ginen...

**Jose Antonio:** Etsai bat geneukan eta errazagoa zen batera aurka egitea. Gero, zatiketak etorri ziren ekintza sozialetan, ikuspegi desberdinak zeudelako. Logikoa zen.

**Orain zer duzue esku artean?**

**Jose Antonio:** Azokari itxaroten nago. Gerediagan ohorezko bazkide naiz, zuzendaritzan urte pilo batez egon nintzelako. Baina ez digute bakerik ematen!

**Juan Mari:** Bangladesen dagoen egoera ikusita, laguntzeko ideia bat aztertzen gabilta. Zelan dago, baina, mundua? Jendeari, hedabideek ematen duten informazioaz aparte, beste ikuspegi bat ematea ere gura izaten dugu.

**Marisa:** Jaiak datoz, eta plataforma barruan indarkeria sexistari aurre egiteko protokoloa osatzen gabilta. Gero, solasaldi literarioekin ere hasiko gara Andragunean, eta Hitez eta Ahotsez ziklokoak ere martxan hasiko gara.

R.P.S. 21406

A. Urreta podólogo

**Podinara Urreta Jainaga**

**OINETAKO PATOLOGIAK**  
**NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK**  
**OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ**

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

hitz

**#gomendioak**

artekalea 23, durango  
946 810 776  
info@hitzliburudenda.com

HELDUENTZAT  
**ETAREN HISTORIA LABURRA**  
Itzi Egoña  
2017

UME ETA GAZTEENTZAT  
**SOINUAK EGITEN DITUEN LIBURUA**  
Hervé Tullet  
2017

MUSIKA  
**SALON, LÁGRIMAS Y DESEO**  
Lila Downs  
2017

**DURANGO** Markel Onaindia Durangaldeko airearen kalitatearen inguruko eztabaida Durangoko osoko bilkurara hedatu zen martitzenean, Herriaren Eskubidea mozio bat onartu eta gero. Bertan, gobernu taldeak (EAJ eta PSE-EE) gaiaz lotutako hainbat iragarpen egin zituen, ezustean. Batetik, Fumbarri fundizioaren inguruetan Eusko Jaurlaritzako unitate mugikor bat ipini dute, datozen egunetan airea neurtzeko. Bestetik, zonalde horretan, San Roken, dagoen airea neurtzeko estazioa berrituko dute, usain txarrak zergatik dauden hobeto aztertu ahal izateko. Azkenik, Iurretako Smurfit enpresan iragazki bat ez dela ondo ibili ere ezagutzera eman du gobernuak. Duela hiru aste jaso zuten abisua, eta enpresa konpontzeko lanetan ei dabil.

Udal gobernuak dio Fumbarri dagoen Zirritza eta Bustintzako auzokideekin batzartu dela, eta horren ondorioz hartu duela unitate mugikor bat ezartzeko erabakia. EH Bilduren arabera, sarritan eskatu dute neurketa hori udalean, eurek ere ezagutu baitute auzokideen iritzia.

## Fumbarri enpresaren inguruetan airearen kalitatea neurtuko dute

Smurfiteko iragazki bat ez dela ondo ibili iragarri du Durangoko gobernuak



Zirritza eta Bustintza auzuneen bueltan ibiliko da Jaurlaritzako unitate mugikorra.

**Iritzi kontrajarriak** EAJk eta PSE-EEK airearen kalitatea “ona edo onargarria” dela nabarmendu zuten, Jaurlaritzaren datuak kontuan har-

tuta. Gainera, gaia “oso serio” hartzen dutela esan zuen Pilar Rios sozialistak. Goiztidi Diaz jeltzaleak adierazi zuen, “airea ona izan arren, usain txarra

kendu ahal bada” lanerako prest daudela. Arazoa Durangaldekoa dela uste du, eta Amankomunazgoak (EH Bildu eta Herriaren Eskubidea) ere zerbait egin de-

zakeela esan zuen. EH Bildu eta Herriaren Eskubidea ez ziren datu ofizialekin hain konbentzituratu agertu. Jarraipenerako protokolo bat eta udal mahai bat eskatu zituen Dani Maeztuk. Julian Riosek hainbat datu erakutsi zituen bilkuran, kutsadura maila altuak erakusten zituztenak.

### Azterketa eskaria

Mozioa ez zen guztiz onartu, baina bai puntu batzuk. Horrela, udalak airearen eta usain

Aire estazioa berrituko dute, usain txarra zergatik dagoen hobeto aztertu ahal izateko

txarraren inguruko azterketa bat egitea eskatuko dio Jaurlaritzari, PPrentz abstentzioa kenduta gainerako alderdi guztien babesagaz.

2.500 herritarrek airea hobetzeko neurriak eskatu dituzte sinadura bilketan, eta udala pausoak ematen hasi da.

## Mintegi eta Perera ez dira jada zinegotzi

Juaristi eta Lopez Lakunza dira euren ordezkoko

### DURANGO M.O.

Ikasturte berriagaz batera, zinegotzi bik kargua uztea erabaki dute. Martitzeneko osoko bilkuran eman zuten erabakiaren berri Rosa Mintegik (EH Bildu) eta Julia Pererak

(Herriaren Eskubidea). Alderdikideen eta alkatearen esker ona jaso zuten biek.

Geratzen den legegaldi erdian, Marisol Juaristik ordezkatu du Mintegi, eta Patxi Lopez Lakunzak Perera.



Mintegi eta Perera, martitzeneko bilkuran.

## Geu Beri 24.000 euro eman dizkio La Caixak

### DURANGO M.O.

La Caixak gizarte inizatibaren proiektuei laguntzen die Obra Sozialeko programaren bidez, eta laugarrenez Durangaldeko Geu Be elkartearen hautatu du, aniztasun funtzionala dutenei espazio bat eskaintzen lan egingen duena. Horrela, 24.000 euro eman dizkio.

Geu Bek Aldundiaren, Amankomunazgoaren eta udalen laguntza ere badu, bere finantziario ekintzez aparte. Baina “beharrizanak beti baliabideak baino handiagoak” direla argitu dute. “Albiste ikaragarria da, amesten jarraitzea eta ametsak egia bihurtzea animatzen gaituena”.

## Aparkatzeko TAO sistema herritarrekin batera berrituko dute

Udalak prozesu parte-hartzaile bat garatuko du

### DURANGO M.O.

Herriaren Eskubidea alderdiak TAO sistema prozesu parte-hartzaile batez eguneratzeko

HE: “Herritarrek behin eta berriro eskatu dute aldaketak egin daitezela zerbitzu honetan”

proposamena egin zuen osoko bilkuran. Euren ustez, “herritarrek behin eta berriro eskatu

dute aldaketak egin daitezela zerbitzu honetan”. Eztabaidan, EAJk mozio alternatibo bat aurkeztu zuen, eta azkenean, testuak adostu eta aho batez onartu zen ideia. Izan ere, gobernu taldeak azaldu zuen prozesu bat garatzeko asmoa duela. EH Bilduren ekimenez onartutako Parte-Hartze Ordenantza erabiliko dute horretarako.

Berez, TAO sistema erregulatzeko kontratua urriaren lehen amaitzen zen, baina udalak luzatu egin du enpresagaz, esleipen berria kaleratu arte.

**katerin ardoak**  
**iñaki uribe**

**saltsan**

Eguneko menuak - Asteburuak menu bereziak  
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

[saltsan.com](http://saltsan.com)

**Arriike**  
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango  
Tel.: 946 201 893  
Faxa: 946 816 403

Eraikuntzarako materiala

**MACOBER**

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ  
Tel.: 946 827 890 [macober@movistar.es](mailto:macober@movistar.es)



lazko edizioan aurreikuspen guztiak gainditu zituztela esan zuten antolatzaileek.

## Fashion Gauan, 41 modelo amateurrek desfilatuko dute gaur

Desfilea 20:30ean hasiko da Andra Marian; 25 komertziok parte hartuko dute

### **DURANGO** M.O.

41 herritar modelo bihurtuko dira gaurko Fashion Gauan. Dendak Bai elkarteak udalaren laguntzagaz antolatzen duen desfilea 20:30ean hasiko da Andra Marian, L'atelier dantza eskolako kideek egingo duten inaugurazio batez.

Durangoko 25 komertziok parte hartuko duten ekitaldian udazkenerako eta negurako pro-

posamenak ikusi ahal izango dira. Herriko merkataritza bultzatzeko ekimena da.

Ekainean egindako castingera 80 bat herritar joan ziren, eta 60 hartu zituzten desfilerako

### **Guztira, 60**

Ekainean egindako castingera 80 bat herritar joan ziren, eta horietatik 60 hartu zituzten desfilerako. 41 amateurrek dira, eta 19 profesionalak. Pasarelara igota, Durangoko komertzioaren sustatzaile ere izango dira. Izan ere, "herriko merkataritzaren ahala erakustea" da helburuetako bat, Alex Palacios Dendak Bai presidentearen esanetan.

Aitziber Irigoras alkatearen ustez, erosketak herrian bertan egitea ere bada indartu gura duten ideietako bat. "Merkataritza lokalak bizitza ematen dio herriari", adierazi du udalbatza osoaren izenean ekimenari babesa eman dion alkateak.

### **Gau bat hotelean**

Aipagarria da sariak eskainiko dituztela Dendak Baikoek. Egunotan txartelak banatu dituzte kalean eta etxeetan, eta

"Herriko merkataritzaren ahala erakustea" da helburuetako bat, Alex Palaciosen esanetan

Txartelak banatu dituzte kalean eta etxeetan, eta gaur, deskontu bonuak zozkatuko dituzte

gaur, deskontu bonuak zozkatuko dituzte. Gainera, duela hile gutxi elkartera batu den Gran Hotelek ekarpena egin du, eta bertan gau bat pasatzea izango da beste sari bat, gosaria eta spa barne.

## Futbol partiduak, musika eta garagardoa, azoka solidarioan

### **OTXANDIO** J.D.

Herriko tabernari eta eragileen ekimenez, zapatuan bigarren aldia egingo du Kirol eta Garagardo Azoka Solidarioak. Beteranoen futbol partiduekin hasiko dute eguna. Athletic Clubak, Durangoko Kulturalak eta Gasteizko Aurrerak hiruko torneoak jokatuko dute Zelaietan. Sarrera 5 euro izango da —16 urtetik beherakoentzat doakoa da— eta batutako diru guztia La Otra Mirada Gobernu Kanpoko Erakundeari emango diote. Goizean, jokalariek sinatutako futbol taldeetako kamisetak zotz egingo dituzte.

16:00etan herriko hainbat kirolari batuko dituen hitzaldia hasiko da kultur etxean: kirola, euskara eta elkartasuna izango dituzte berba. Garagardo azoka 17:30etik 21:30era izango da. Plaza inguruan garagardoaren eta gaztaren gainera postuak izango dira, beste beste. Herriko musikariek (Umhas eta Nora & Jabi Txondorra) giroa zotz egingo dute azoka.



**107,8**  
Frekuentzia

**f** Durango Irratia  
<https://www.facebook.com/durangoirratia>

**t** @Durango\_Irratia

**Durango irratia**  
Gertukoena

**Denboraldi BERRIA**

Irrati tailerrak eskolartekoekin, Gorabide eta Immigrazio sailarekin elkarlana eta Durangoko elkarte eta kirol klubekin parte-hartzea.

Larrasoloeta kalea, 5  
48200 Durango, Bizkaia  
Tf.: 946 21 55 99

[durangoirratia@durango-udala.net](mailto:durangoirratia@durango-udala.net)  
[www.durango-udala.net/durangoirratia](http://www.durango-udala.net/durangoirratia)

**di**  
**durango irratia**

**DURANGO**  
Udala • Ayuntamiento

# Gazte euskaldunen koreografia japoniarrak ikusgai Mangamoren

Aurreko aldietako eskari handiagatik lehiaketa bat antolatu dute aurten



Mangamore jaialdiko sustatzaile eta antolatzaileek asteon eman dute ekitaldien berri.

**ZORNOTZA** Joseba Derteano Mangari eta kultura japoniarrari buruzko Mangamore jaialdia aurkeztu dute asteon. Zazpi gunetan banatuta, ehun ekitalditik gora batuko ditu urriaren 6tik 8ra hamaikagarren aldia egingo duen jaialdiak.

Aurreko aldietan Koreako eta Japoniako abestien koreografie osatutako erakustaldiak antolatu dituzte. Ekitaldi horien harira, euren koreografiak erakusteko “hainbat eskari” jaso dituzte euskaldun gazteen partetik, eta aurten lehiaketa bat antolatzea erabaki dute, David Murillo Ametx Gazteriako koordinatzaileak eta Mangamoreko antolatzaileetakoak azaldu

duenez. 20 saio izango dira, taldeka edo bakarka. Denak Euskal Herrikoak dira, batez ere gipuzkoarrak.

Zornotzan izango den Kalathras youtuberrak lau kanal eta bi milioi jarraitzailetik gora ditu

## Kalathras youtuberra

Kalathras youtuberrak manga eta anime munduari buruzko lau kanal ditu youtuben. Denak zenbatuta, bi milioi jarraitzailetik gora ditu. Bere zaleek ber-

tatik bertara ezagutu ahalko dute Zornotzan, urriaren 7an, 11:30ean, Zelaieta zentroan.

Mitsuru Nagata marrazkilaria zuzeneko erakustaldiak egingo ditu Zornotzan. Pantaila handi baten laguntzagaz, une horretan marrazten dabilena jarraitu ahalko da.

Areatzako Bandak anime munduko hainbat abestiz osatutako kontzertua eskaini zuen iaz, eta aurten errepikatu egingo du. Zornotzako pilotalekuan izango da barikuan, 20:00etan.

Tamara Ferrero moda diseinatzailearen Lolita moda desfilea da beste osagaietako bat. Egitarau osoa [mangamore.net](http://mangamore.net) webgunean aurkitu daiteke.

## “Ezbeharrean bat” jazo aurretik trafiko neurriak hartzeko eskaera

**IZURTZA** I. E.

BI-623 errepideak bitan zatitzen du Izurtzako herrigunea. Trafiko dentsitatea eta gehiegizko abiadura direla-eta udalak urteak daramatza errepideen ardura duten organoei irtenbideak proposatzen (biri-bilgunea, ordezko errepidea, arekak, radarrak...), baina, oraingoz, emaitza eraginkorrik barik. Oraintsu, beste saiakera bat egin dute Aldundira zein Jauralaritzara bidalitako gutun baten bidez.

Denboragaz “egoera okerrera” egiten ari den ustea dutela jasotzen du gutunak. “Batek baino gehiagok uste-kaberen bat edo beste izan du espaloitik zihoala edo bere etxerako sarrera-irteeretan”, abisatu dute. 2015ean Aldundiak Bizkaiko errepideen garapenaren inguruan egindako azterketaren arabera, 6.400 ibilgailukoa da, batez beste, eguneko trafikoa emaria. “Dentsitate izugarria” da, udalaren esanetan.

Egoera konpontzeko, Seguratasun Saileko arduradunekin zein Durangoko Ertzaintzagaz bildu izan dira, baina ez dute lortu “egoera hobetuko lukeen benetako emaitzarik”. Horrela, “ezbehar larriren” bat gertatu aurretik irtenbideak “bizkor” emateko eskatu dute.

## Kultur aniztasunaren jaia antolatu dute biharko

**ZALDIBAR** I. E.

Kultur aniztasunaren jaia ospatuko dute, bihar, hirugarren urtez, Zaldibarko Jendeak Taldearen eskutik, eta udalaren laguntzagaz. Europa osoan zein gure gizartean ere hedatzen dabilen arrazakeriari eta xenofobiari aurre egiteko, “herritarren arteko elkar ezagutza, elkarlana eta aniztasunari balioa ematea” dira Zaldibarko Jendeak Taldearen ustez biderik onena, eta asmo horregaz antolatu dute biharko jaia.

Arazakeriari eta xenofobiari aurre egiteko, “elkar ezagutza” bultzatu gura dute antolatzaileek

Kalejira batek emango dio jaiari hasiera, 11:00etan, eta Zaldibarren bizi diren kulturetako jakiak dastatzeko aukera izango da 13:00etan. Ondoren, 14:30ean, bazkaltzera elkartuko dira herritarrak. Arratsaldean, aurreko bi urteetan egin duten bezala, kultura jaialdia egingo dute, 16:00etatik 18:00etara. Senegalgo doinuak jotzen dituen Sapa-li taldeagaz kalejira abiatuko dute 18:00etan, eta Gaztetxean jarraituko du jaiak ondoren.

**ZURE AUKERA DAUKAGU. NAHI AL DUZU?**

**Aukera batek gauza asko alda ditzake. Ahalegindu nahi baduzu, guk aukera bat emango dizugu.**

16 eta 30 urte bitartean badituzu, goi-mailako ikasketarik ez baduzu eta langabezian bazaude...

**AUKERA BAT ...**

- Zer egin nahi duzun hautatzeko.
- Gustatzen zaizuna ikasteko eta horretan prestatzeko.
- Lan-merkatuan zure balioa erakusteko.
- Zugan konfiantza duten pertsonekin jarduteko.

Informazio gehiago jaso nahi baduzu deitu Durangaldeko Behargintzara, **94 623 25 22** telefono zenbakira edo idatzi [prestakuntza.mdurango@bizkaia.org](mailto:prestakuntza.mdurango@bizkaia.org) helbidera.

Izena emateko azkenengo eguna: 2017ko urriaren 17a

Jarduketa hau Gazte Enplegurako 2014-2020 Programa Operatiboaren barruan garatuko da, eta Europako Gizarte Funtso arduratuko da % 91,89 finantzatzeaz.

## Suhiltzaileek askotan joan behar izan dute kultur etxera sutearen arrastoak itzaltzera

Teilatuko material isolatzaileak kea eragin du sutearen osteko bost egunetan

**MALLABIA** J.D.

Orain astebete su hartu zuen Kalbario kaleko etxebizitza batek. Kultur etxea dagoen eraikina ondo-ondoan du eta suak kultur etxeko teilatuari ere eragin zion. Hurrengo lau egunetan sutearen arrastoak erabat itzali ezinda ibili ziren suhiltzaileak. Kultur etxeko teilatutik kea irteten zen eta egunero bertaratu behar izan dute, batzuetan egunean birritan. Teilatuko material isolatzaileak izan du zerikusia horretan. Martitzenean material horren zati bat kendu eta egoera kontrolatzea lortu zuten.

Erretako etxebizitzaren albo batean beste bizileku bat dago. Azken horrek teilatuan kalteak izan zituen. Horregatik, eta etxe



Joan zen barikuko suteak Kalbario kaleko hiru eraikini eragin zien.

barruan dagoen usain txarragatik, bertan bizi den familiak udalaren bizileku batean eman du gaua egunotan.

## Enpresako sutea

Beste sute batek Hierros Servando enpresako—Goitondo industrialdean— pabilioi bi erre-

zitzen joan zen astean. Ondoko enpresa bateko pabilioia ere egoera eskasean geratu da. Ezin dute han lan egin, besteak beste ez dutelako argindarrik. Horregatik, Jauralaritzako SPRI enpresa garapenerako erakundearen bidez beste pabilioi batean dihardute, industrialde berean.

6.400 €

-tik aurrera  
Etxetresna elektrikoak barne

**URRIAREN  
28ra arte**

“GLAMOUR HANDIKO  
URTEURRENA”



SCHMIDT ABADIÑO  
Murua auzoa, z/g - 17B lokalea  
Eroski saltoki-gunea - ABADIÑO  
Tel.: 946 526 195 · info@schmidt-abadiano.com  
www.schmidt-cocinas.es

**SCHMIDT**  
Cocinas y Muebles de Hogar

# Euskal mitologiako paisaia sinbolikoak izango dira aurtengo jardunaldien abiapuntu

Atxondon eta Otxandion bisita gidatuak egingo dituzte asteburuan, Gerediaga Elkarteak antolatuta

**ATXONDO** M.Zuazubiskar  
*Paisaia bizia* lelopean, herrietako paisaia bisitariei gerturaztea izango da Europako Onda-

rearen Jardunaldien aurtengo ekintzen helburua. Gerediaga Elkarteak jakitera eman duenez, bederatzi ibilbide diseinatu

dituzte, eskualdeko paisaiagaz batera inguruaren ondarea, historia eta aberastasuna ezagutzera emateko.

Lehenengo jardunaldia zapatu honetan izango da, Atxondon. Arratsaldeko bostetan, bisita gidatu baten bidez, Euskal Herriko gailurrik ezagunetarikoa den Anboto ingurua ezagutzeko aukera eskainiko dute Gerediaga Elkarteak eta Atxondoko Udalak. Ondoren, Mari Jose Olabarriak sustatu eta sortutako Gutik Zura dokumentala eskainiko dute.

Bestalde, bederatzi bisita gidatuz osatuta dauden Ondarearen Jardunaldiak Otxandion izango dute jarraipena, bihar-munean. Atxondoko eta Otxandionko asteburuko bisita gidatuz gain, urriko asteburuetan eskualdeko beste herri batzuk ere bisitatuko dituzte.

## Ikasleak geletatik kanpo, matxura baten ondorioz

**ATXONDO** M.Zuazubiskar  
Astelenean Lehen Hezkuntzako eraikineko sukaldean matxura bat izan ostean, ikasleak geletatik kanpo egon behar izan dute bi egunez. Duela lau urte eraiki zuten eraikinean hainbat matxura egon dira azken hilabeteetan, guztiak arazo berdinagatik. Goiko pisuko galdarako hodi bat hautsi eta eraikin guztia urez betetzen da.

Astelenean matxura gertatu zenean, egun horretako eskola orduak amaituzat eman zituzten. Martitzenean eta eguaztenean Lehen Hezkuntzako ikasleak beste gela batzuetara eraman zituzten, eta atzo goizean beraien geletara itzuli zirela jakitera eman du David Cobos alkateak.



Zapatuan, 17:00etan hasiko da Atxondon egingo duten bisita gidatua. Gerediaga Elkarteak

## Herri bazkariagaz, Kulotxako jaiak ospatuko dituzte

**ELORRIO** M.Z.  
Zapatu honetan Kulotxako jaiak ospatuko dituzte Elorrioren. Iaz lehenengoz ospatu ostean, asteburu honetarako ere egitarau zabala antolatu dute Kulo txako auzokideek.

11:00etan artisautza azoka, umeentzako jolasak eta tailerrak egongo dira. 14:00etan bazkari herrikoian batuko dira, paella erraldoi bat jateko. Arratsaldean txokolatadaren txanda izango da. 20:00etan kontzertu-afaria izango dute eta 22:00etan, Laket taldearen eskutik, erromeria izango dute. Jaiei amaiera emateko, berriz, Xelai tabernan Jkin Alonso DJa egongo da.

## Andra Mari kaleko lanak esleitu dituzte

**MAÑARIA** J.D.  
Mañariko Andra Mari kalea konpontzeko lanak Provisa enpresari esleitu zizkion udalak martitzeneko udalbatzarrean. Lehiaketa publikoan eskaintzarik onena egin duen enpresa izan da eta aho batez hartu zuen erabakia udalbatzarrek.

Andra Mari kale osoa asfaltatu egingo dute, besteak beste gaur egun ez dagoelako ondo. Horrela, ibilgailuen joan-etorriak erraztuko dituzte. Horrez gainera, pertsona ezinduek espaloitik ibili ahal izateko neurriak hartuko dituztela ere iragarri dute. Lanen helburua oinezkoen, bizikleten eta autoen arteko elkarbizitza sustatzeko lanak burutzea ere bada. 104.000 euroko aurrekontua dute.



Montoitik jaurtitako txapliguekin hasi dituzte sanmigelak iurretarek.

## Sanmigelek jai-giroz bustiko dituzte kaleak

Ekitaldiz jositako asteburua dute aurretik

**IURRETA** Aitziber Basauri  
Montoitik jaurtitako txapliguekin batera jai-giroz busti ziren, atzo, Iurretako kale eta bazterrak. Sanmigelei behin betiko ondoetorria eman guran, hainbat iurretarek batu zen Montoian. Arratsalderako hitzordua ere jarrita zuten, Doniel Atxa igo-

tzekoa. Gaur hasita, ekintzaz jositako asteburua dute aurretik. Dantzari eta agintarien kalejiragaz hasiko dute, gaur, San Migel eguna. Dantzarien saioak, Pirritx, Porrotx eta Mari Mototsen ikuskizunak, bertso jaialdiak eta gaueko kontzertuek osatuko dute eguna.

## Gontzal Mendibilen kontzertua, zapatuan

**BERRIZ** M.Z.  
Atzotik Mikel Deunaren jaiak ospatzen dabilta Okangon. Gaur arratsaldean meza egongo da, eta, ondoren, odoloste jana eta bolo txapelketa.

Bihar, Gontzal Mendibilek *Nire bihotzak zure begiak*

*ditu* diskoa aurkeztuko du, 20:00etan, eta, aurretik, umeen jolasak eta txirindulari lasterketa herrikoia egingo dituzte.

Domekan emango diete jaiei amaiera, Miren Amuriza eta Uxue Alberdi bertsolarien saioagaz.

**Seguros Bilbao**

**RUEDA BILBAO ASEGURUAK**  
**Jabier Rueda**

Landako etorbidea, 1 DURANGO  
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577  
jrueda@segurosbilbao.com

**GAER DESINFEKZIOAK**

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxe: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



# Rothenberger-eko langileak greban daude, hitzarmena aldarrikatzeko

“Hitzarmen propio duin baten alde” hasi zuten greba, astelehenean



Lau orduko lanuzteak egiten dituzte astelehenean barikura, eta lanaldi osoak barikuetan.

**ABADIÑO** Itsaso Esteban LAB, CCOO eta ELA sindikatuetako ordezkariak osaturiko enpresa batzordeak deituta, gre-

ba hasi zuten Rothenberger enpresako langileek astelehenean. Enpresa batzordearen arabera, tailerreko langile guztiak eta bu-

legoetako hainbatek egin dute bat deialdiagaz. Astelehenean egunera lau orduko lanuzteak egiten dituzte, eta lanaldi oso-

koak barikuetan. Enpresaren aurrean kontzentrazioak burutzen dituzte, egunero, *Hitzarmen duin baten alde* lemagaz.

2011tik enpresako hitzarmenik barik daude Rothenberger-en, eta urteak dira aldarrikapen horregaz mobilizatzen dabiltzala. “Zuzendaritzak ez du negoziatzeko borondaterik”, diote enpresa batzordeko kideek. “Enpresan urte asko daromatzenek diote ezagutu duten zuzendaritzarik zorrotzena dela hau, eta aldi berean utzikeria handienagaz diharduena”.

Lan erreforma aplikatuta, soldatak %5 jaitsi eta lanaldia luzatu zieten langileei 2013an. Enpresak irabaziak dituela jakinik, honako eskariak gauzatu dituen “hitzarmen justu bat” eskatzen diote langileek enpresako zuzendaritzari: lan erreformaren kontrako klausulak onartzea, lan finkoa bultzatu eta babestea, soldatak eguneratzea eta lanaldia murriztea.

## SEI HANKAKO MAHAIA

**DANI MAEZTU PEREZ**

EH Bildu



## Votarem

Igande honetan Katalunian gertatuko dena ez da soilik Kataluniarekin eta bertako herritarrek duten erabakitze eskubidearekin zerikusia duen afera. Adostutako eta berme guztiak eginiko erreferenduma izango balitz, Quebecen eta Eskozian gertatu bezala, barne kontu bat izango litzateke, eta ez zuen horrenbesteko oihartzuna izango. Baina, kasu honetan Espainiaren jarrera bortitzaren ondorioz galdeketak beste tranzendentzia bat hartu du.

Urriaren lehen gertatuko denak, kontuan izanik aurreko asteetan eta hila-betetan gertatu dena, beste tranzendentzia bat hartu du. Alegia, XXI. mendeko Europa kapitalistan burujabe izateko borroka batetaz ari gara.

Katalunian ditudan ezagunei esan diet nigatik ere bozkatzera joan daitezela

Horregatik, Katalunian ditudan ezagunei esan diet nigatik ere bozkatzera joan daitezela igande honetan. Diktadura batek neurritan egindako jantzi sasi-demokratiko honetan ezeroso gauden guztiengatik. Kale mobilizazioak erakundeak mugiaraztea lortzea nahi dugun guztiengatik. Eta era berean ere, burujabetza, nor-tasun agirian Espainia jartzen duen lekuan Euskal Herria jartzea baino askoz gehiago dela nahi dugun guztiengatik.

## EH Bilduren sinadura bilketa change.org-en

**ABADIÑO** I. E.

Abadiñoko Udaleri zuzenduriko eskaria argitaratu du EH Bilduk [www.change.org](http://www.change.org) webgunean. Abadiñoko kiroldegiko tarifak jaitea eskatu du atari horren bitartez. Koalizioak kritikatu du Abadiñoko kirol-

degiko tarifak Durangaldeko altuenak dituela, eta hainbat aldiz aldarrikatu dutela egoera hori ez dela bidezkoa. “Tarifak berraztertze eskara egin genuen”, dio EH Bilduk, “eta gobernu taldeak berriskuspen hori egiteko beharra onartu zuen”. Ikasturte berria hasi den honetan, baina, “oraingoz ez dute ezelako proposamenik egin”, dio EH Bilduk. “Dirudienez, gobernu taldeak ez du jaitsierarik gura”.

## Zubiaurretarren errautsak ekarri dituzte Garaira

**GARAI** M.O.

Otsailean Leopoldo Gutierrez Zubiaurre hil zen, Garaiko Zubiaurre artisten familiaren kideetako bat, Pilar Zubiaurre idazle eta feminista zenaren semea, hain zuzen ere. Bera ere intelektual lez ulertu izan dute

askok, injineru eta ekonomialari izateaz aparte. Mexikon bizi zen, eta egunotan Garaira etorri dira bere seme-alabak, Mercedes Garcia-Urtiaga Torrontegui emaztearen eta bere errautsak ekartzera. Domekan hobiratuko dituzte. Aurretik, 10:15ean, omenaldia eskainiko diete udalak eta dantzariak.

Zubiaurretarrek gerra sa-soian egin zuten ihes. Leopoldoren osaba bi margolariak ziren, eta aitite musikari ezaguna.

## DURANGALDEA ASTEON

### Dudea auzoan San Migel jaiak ospatzen

**ZORNOTZA** > Atzotik daude jaietan Zornotzako Dudea auzoan. Gaur, San Migel egunez, eta bihar izango dituzte jai egitarauaren barruko ekintzarik gehienak. Gaur nagusientzako bazkaria, tortilla eta mus txapelketak, DJ Bullen saioa eta banakako bolo txapelketa izango dituzte. Bihar, mozorro eguna ospatuko dute.

### Estimulazio tailerra 75 urtetik gorakoentzat

**BERRIZ** > Urriaren 4tik maiatzera arte, 75 urtetik gorako berriztarren autonomia garatzea helburu duen tailerra egingo dute. Arlo soziala, psikomotrizitatea eta estimulazio kognitiboa landuko dituzte saioetan parte hartzen dutenek. Udalera deituta edo [gizarte@berriz.eus](mailto:gizarte@berriz.eus) helbidera idatzita eman daiteke izena.

### Arabar Errioxan egun-pasa, urriaren 7an

**GARAI** > Urriaren 7rako Laguardiara irteera antolatu du Garaiko Nagusien Elkarteak. 08:30ean aterako dira herriko plazatik Arabar Errioxarantz. San Pedro upategia bisitatuko dute, Las Costas jatetxean bazkaldu, eta arratsaldez eliza ikustera jongo dira. Urriaren 5era arte eman daiteke izena, Herriko tabernan.

## IRITZIA

[astekaria@anboto.org](mailto:astekaria@anboto.org)  
asteartea 17:00ak arteko epea

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:**

Bixente Kapanaga 9, 48215 - Iurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

**DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOn irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitakoan eta emandako iritzien erantzukizunik.

### Gutuna

Kaixo, lagun feminista.

Dakizunez, jai eremua guztiontzat gozagarria izateko, gertatu daitezkeen eraso sexistak prebenitu beharra dago. Hori dela eta, iaz bezala, aurten ere gauero brigada feministak antolatu nahi ditugu; eta, horretarako, zure lagutza beharrezkoa dugu.

Brigada feministak jaietan eta han-hemenka ibiliko diren emakume taldeak dira.

Gauak, jaiak, festa... geureak ere badirela aldarrikatuko dugu txosnagunea zainduz eta gerta daitezkeen erasoei aurre egingez.

Brigada hauetan parte hartu nahi baduzu, bakarka zein taldeka, [durangokotxosnetakobrigadak@gmail.com](mailto:durangokotxosnetakobrigadak@gmail.com) emailera idatzi, zure izena eta telefono zenbakia emanez. Horrela, zurekin harremanetan jarriko gara.

Gora borroka feminista.

Durangoko Txosna Batzordea  
Ainhua Urrengoetxea Gezala eta Ainhua Olaso Sopelana

# Begirada guztiak domekako erreferendum egunean jarrita

Durangon, Elorrian, Mañarian eta Izurtzan erreferenduma babestu dute mozioen bidez

**> UI** Markel Onaindia

Inork ez du argi zer gertatuko den domekan, baina zerbait garrantzitsua badatorrela dirudi. Erreferendumaren aldekoek kalean azaldu duten jarrera irmoak erakusten du hori, Espainiako Gobernuaren atxiloketek eta polizia inbertsioak ere bai. Begirada guztiak domekan jarrita daude.

Gure Esku Dagok manifestaziorako deia egin du biharko, Bilbon, 17:30ean, Kasillatik

Elorriko Gure Esku Dagok elkarretaratzerako deitu du domekarako; 13:00etan hasiko da, herriko plazan

Azken egunetan, Durangaldean ere eduki du eragina gaiak.

Esaterako, Durango, Elorrio, Izurtza eta Mañariko udaletan erreferendumari babeserantzeko mozioak onartu dituzte, eta gaia atzo lantzekoak ziren Zaldibarren, Otxandion eta Mallabian. Gaur eztabaidatuko dute Zornotzan, mozio bateratu lez. Abadiñon ez zen onartu, alderdi bakoitzak bere mozioa aurkeztu eta batek ere ez zuelako aurrera egin –gainerako herririk gehienetan ere bakoitzak berea aurkeztu du–. Katalunian nabari den adostasuna hemen falta den seinale.

## Gazteen protestak

Bestalde, atzo 150 gazte mobilizatu ziren Durangoko Andra Marian, independentziaren aldeko elkarretaratzean. *Baimenik ez!* lemapean batu ziren, tartean zenbait ikastetxetako ikasleak ere bai. Joan zen barikuan, ostera, Durangoko La Caixaren bulego batean protesta egin zuten gazte batzuek, bankuak “independentziaren aurkako jarrera” hartu duela salatzen. Bideoz grabatu eta zabaldu egin zuten ekintza.



Katalunian jende ugari atera da kalera azken asteetan. Josep Maria Muntaner. NacióDigital.



150 bat gaztek elkarretaratzea egin zuten atzo Durangon.

**Bilbon eta Elorrian** Herritarren erreferendumarekiko babesak eta mobilizazioek asteburuan izango dute segi-

da. Izan ere, Gure Esku Dagok manifestaziorako deia egin du biharko, Bilbon, 17:30ean, Kasillatik. Bere aldetik, Elorriko

Gure Esku Dagok elkarretaratzerako deitu du domekarako; 13:00etan hasiko da, herriko plazan.

## “Erreferenduma egiten ez bada, giroa gaiztotu egingo da”

Erreferenduma “guztiz bidezkoa” dela uste du Mikel Polo zornotzarrak

**> UI** Joseba Derteano

Katalunian sei urte daramatza Mikel Polo Gerrikabeitiak

(Zornotza, 1980). Herritarren begiradaz gain, kazetariarena ere badu. ANBOTOko erredakzioan ibilitakoa da,

orain urte batzuk. Katalunian mutur ideologikoak urruntzen dabilzala eta zerbait gertatzeaz dagoela uste du.



Kazetaria eta saskibaloari entrenatzailea da Mikel Polo.

**Erreferenduma egingo dela uste duzu?**

Denok egiten dugun galdera da. Poliziaren azken aldiko jarrera ikusita, zail ikusten dut. Hautetsontzi bat non, polizia han egongo dela ematen du.

**Aldekoen eta kontrako jarrerak argitu direla dirudi...**

Jarrera baten edo besteren alde egiten duten herritarrek elkarrengandik urrunago daude, muturrak urrundu egin dira. Azkenean, erabakitze eskubidearen aldeko eztabaida zabala barik, bateraezinak diruditen pentsatzeko modu biren artekoa da. Zeozer gertatu behar duela dirudi. Erreferendumaren aldekoa amorratuta ikusten dut gertatzen ari denagatik. Urriaren 1ean erreferenduma egiten ez bada, giroa gaiztotu eta amorrua handitu egingo da, eta batzuek eta besteek irtenbide bat bilatu beharko diote. Erreferenduma gau-

zaten ez bada, negoziazio bat abiatu beharko dute.

**Erreferendumari zilegitasuna ematen diozu? Zelan ikusi duzu bere ibilbidea?**

Guztiz bidezkoa dela deritzot. Erabakitze eskubidearen alde dauden batzuek diote ezin dela erreferenduma horrela egin, berme batzuk behar direla. Baina, jakina, ez dago beste modurik. Espainiako Gobernuak dio negoziatzeko prest dagoela, baina erreferenduma ezin dela mahai gainean jarri. Nazio Batuen Erakundeko gutunak dio herrien borondateak gorpuztu behar dituela legeak, eta ez alderantziz. Hasieran, CIUK eta Masek modu interesatuan abiatu zuten prozesua zela uste izan nuen, ustelkeria estaltzeko komeni zitzaielako. Baina, CUPen presioari esker, Masek dimititu egin zuen, eta erabaki ona izan zen, ustelkeriak prozesua ez zipriztintzeko.



Espainiar Gobernuak erreferenduma galarazi gura du. Adrià Costa. NacióDigital.



Azken egunetan manifestazio ugari egin dituzte Katalunian. Josep Maria Muntaner. NacióDigital.



Bartzelonan emango du botoa Elorriagak.

## “Hemengo sentsazioa da ez dagoela atzera bueltarik”

Katalanak oso konbentzituta ikusten ditu Nerea Elorriaga iurretarrak

**>UI** Markel Onaindia  
Urte batzuk badira Nerea Elorriaga del Arco (lurreta, 1983) Kataluniara joan zela, eta irakasle dabil. Erreferenduma oztopatuko dutela eta ekintza bat izango dela uste du.

**Zelan bizi izan duzu Kataluniako prozesua?**  
Giza katera joan nintzen, eta memorian markatu ninduen. Hor konturatu nintzen katalanak serio zebiltzala. Politikarrien aldetik interesak egon dai-

tezke, baina jendearen partetik sentimendu zintzoa dago, argia. Gehiengo oso handi batek gura du independentzia, sentsazioa da ez dagoela atzera bueltarik. Eta gura ez dutenen artean, gehiengoak ulertzen du erreferenduma egiteko nahia.

**Erreferenduma egingo da?**  
Uste dut, benetan, ekintza bat izango dela erreferendum bat baino. Ez dut uste utziko digutenik bozketa normal bat egingen, eta leku bakoitzean era batean biziko da. Jendea lurrean

jesarriko da eta ea nork altxatzen dituen milaka pertsona horiek. Hala ere, domekatik aurrera, ea nazioarteak zer dioen. Espainiak atzera egin beharko du, edo, bestela, militarki okupatu, jendea oso konbentzituta dago eta.

**Bozkatuko duzu?**  
Bai, Bartzelonan emango dut botoa. Web zarratu orduko, bozkatzera nora joan behar nuen ikusi nuen. Errolda 2017ko urtarrilekoa da, eta ondo eginda dago.

## “Atxilotuta egon ziren bitartean, epaitegi aurrera joan nintzen”

Bartzelonako protesta “hunkigarriak” bizi izan ditu Odiaga iurretarrak

**>UI** Markel Onaindia  
Gaztetatik Bartzelonan bizi da Josean Odiaga Galletebeitia (lurreta, 1969). Euskal Etxean euskara saileko koordinatzaile eta irakasle da. “Astelehenean hasiko ditugu klaseak, independente izan ala ez”, dio umoretsu.

**Protesta batzuetan parte hartu duzu egunotan.**  
Generalitateko kargudunak atxilotuta egon ziren bitartean, justizia epaitegi aurrera joan

nintzen, lanetik irtetea. Jende pilo zegoen, beteta. Musika-riak etorri ziren, Omnium eta ANCKoek ura eta jatekoa banatu zuten... Oso hunkigarria izan zen. Jendea ilusionatuta ikusten zen.

**Erreferenduma posible da?**  
Gaitza da esatea egingo den ala ez. Eskualdeetan eta herri txikietan egingo dela uste dut, ez baitago poliziarik leku guztietara bidaltzeko. Okerrena gune metropolitanoetan izango da. Aspalditik esaten dabilta era

baketsuan protesta egiteko, nazioartearen ikusi dadin. Zerbait egin behar bada, lurrean etzatea, baina poliziak ukitu barik.

**Eta aurrera begira, zer?**  
Espainiako gobernuak zer egingo du katalanak berreskuratzeke? Ez dute ezer gura estatuetatik. PSOEek esan du federalismoa lantzeko batzorde bat sortzea. Orain? Estatutua atzera bota zutenean, orduan zen horretarako sasoa. Orain, ja-da, berandu da. Jendeak banatu gura du, nekatuta dago.



Bartzelakoko Euskal Etxean euskara irakasle dabil Odiaga.

# “Gobernu espainiarra oso berandu konturatu da katalanak serio zihozela”

Euskal Herrian erreferendumaren alde deitutako mobilizazioetan parte hartzeko deia egin du Begotxu Olaizola ANCko ordezkariak

**>UI** Jone Guenetxea

Kataluniako erreferenduma as-  
teburuko arretagune handiene-  
tako bat izango da. Espainiako  
gobernuak galdeketa oztopa-  
tzeko hainbat neurri hartu ba-  
ditu ere, Kataluniako agintariek  
erabakitzeko eskubidea gau-  
zatu egingo dela diote. Azken  
egunotan mobilizazio jende-  
tsuak izan dira Katalunian era-  
bakitzeko eskubidearen alde.

Zelan bizi duzu momentu honetan Katalunian gertatzen ari dena?

Urriaren 1a iristeko gogoz gaude denok. Nik eta beste kide askok ezin dugu bozkatu ez gaudelako Katalunian erroldatuta, baina bozkatu dezaketenek botoa ematea da gura duguna. Urteen poderioz, konplizitate batzuk sortzea lortu da gizartearen, klase politikoaren, parlamentuaren, gobernuaren eta sindikatuen artean erabakitzeko eskubidea gauzatu dadin. Hori ez da helmuga, fase bat baizik. Lasterketa honetan estatu independente bat lortzeko mugarri bat da. Horregatik, egun garrantzitsua da. Gobernuaren lana erreferendum hori egin daitekeela bermatzea da. Hau da, jakingo dugula non bozkatu daitekeen, egongo direla hautetsontzi eta papeletak. Eta gobernu egin daitekeen guztia egiten ari da hori bermatzeko. Agindu hori jaso du herritarren-gandik eta horixe betetzen ari dira. Urriaren 1a, berriz, herritarren momentua izango da.

**Zein giro sumatzen duzu Katalunian?**

Herritarrak ahaldundu egin dira. Ez orain bakarrik. Oztopo lasterketa bat izan da urte hauetan guztietan eta xake partida honetan herri katalanak imajinazioa eta umorea erabilita lortu du aurrera egitea. Uste dut jakingo dutela erabaki sorpresiboak hartzen erreferenduma gauzatu ahal izateko. Hortik aurrera, ezer ez da berdina izango.

**Herritarrek zein paper jokatu dute prozesu honetan?**

Herritarrek paper garrantzitsua izan dute eta horretan lan egin dute, bai ANC-k, bai Omniumek. Momentu batean klase politikoak pentsatu zuen herriaren nahi honi erantzun bat eman behar ziotela edo kale egingo zutela. 2012ko Diadan oso garbi ikusi zen. Bestalde, ezin izan da lasai eztabaidatu Katalunia in-



**Begotxu  
Olaizola Elordi**

Euskal Herriko ANCko  
arduraduna  
| 1964 Zarautz

dependente baten inguruan, Eskozian gertatu zen bezala, bai aldekoen eta baita kontrakoen aldetik ere. Herriari kendu egin zaio informatzeko eta eztabaidatzeko izan zezakeen aukera hori. Azaroaren 9ko galdeketa-ko eztabaidak oso ugariak izan ziren. Baina, hilabete hauetan ezin izan da normaltasunez erreferenduma prestatu, baietza edo ezetza bultzatuta ere.

**Gobernu zentralaren jarrera zelan baloratzen duzu?**

Gobernu honek, ez aurrekoek, ez diete arazo politikoei erantzun politikorik eman. Erantzun judizialak izan dira. Badirudi agintariek ez dakitela beste era batera kudeatzen estatuan gerta daitezkeen gauzak. Kultura demokratikoaren gabezia dago. Gauzak beste era batera egin behar ziren, beste herrialde ba-

“  
*Agian, galdeketa desprestigiatzeko helburuagaz ezetzari ez zaio adierazten utzi*”

“  
*Beldurrean oinarritutako estrategiek ez dute funtzionatu Katalunian*”

tzuek egin duten moduan. Horrek ez du esan gura ezin duzunik ezetza defendatu, baina konbentzimenduz, ez tribunalak edo indarra erabiliz.

**Kataluniara bidalitako indar polizialak eta Mossoen ardura beste agintari batzuek hartzea kezka bizi duzue urriaren 1era begira?**

Hau guztia beldurraren estrategia batean kokatzen da. Berezi-ki, parte-hartzea jaitsi dadin. Horrelako gauzek, baina, kontrako efektua egin dezakete. Aurreko asteko atxilotetak ez dira kasualitate bat izan. Planifikatuta zegoen. Baina, udatik egon diren beldurrean oinarritutako estrategiek ez dute funtzionatu Katalunian. Gobernu espainiarra oso berandu konturatu da katalanak serio zihozela. Ez du sinetsi gobernu katalana hona helduko zela, ezta herria atzean izango zue-

tute. Ez dut uste azken momentuan marra hori gurutzatuko dutenik. Bestalde, herri katalanak erakutsi du lasaitasunez erantzuten badakiela, bide baketsuak erabiliz.

**Zer gertatuko da domekan?**

Jendeak bozkatu egingo duela. Gobernu katalana bermatzen ari da traba guztien gainetik erreferendum bat egin ahal izatea. Biolentzia badago, ez da izango herri katalanak bultzatuta. Herritarrek gura duten bakarra erabakitzeko eskubidea gauzatea da, eta hori guztiz demokratikoa da. Zorritzarrez, ezin da izan oso erreferendum normala. Uste dut baietak irabaziko duela. Arazoa da gauzak nola izan diren.

**Urriaren 1ean Kataluniara joango zara erreferendum eguna bertan bizitzera?**

Euskal Herrian antolatutako mobilizazioetan parte hartuko dut zapatuan. Assembleak atzerriko ANCren ordezkari bat joatea beharrezkotzat jotzen badu, joango gara, bestela ez. Hemendik eman dezakegun laguntasuna hemen erakutsi behar dugu. Egun hori katalanen eguna da. Beraien eskuetan dago. Beraiek dute protagonismoa.

**Euskal Herriko Kataluniako prozesua modu berezian begiratzen al da?**

Bai, testuinguruak ezberdinak diren arren, uste dut prozesu hauetatik ikasi dezakegula.

**ANCren ordezkaria zara Euskal Herrian. Zein hartu-eman duzu Kataluniagaz?**

Galdeketa batzuk eginda zeude-nean sortu zen Assemblea Nacional Catalana (ANC). Apurka-apurka sareten joan zen eta lurraldeka taldeak sortu ziren. Bide horretan, kanpoan bizi ziren katalanen koloniek sentitu zuten eragiteko beharra zutela. Australian, Estatu Batuetan (New Yorkekoa bereziki), Londresen eta beste leku batzuetan talde batzuk sortu ziren. 2013an Euskal Herrian ere behar hori genuela sentitu genuen. Galizian eta Madrilen ere sortu ziren beste talde bi. Nire kasuan, aurretik ere banintzen Assembleako kidea País Valenciàtik. Izan ere, Valentzian bizitzen egon nintzen. Euskal Herriko taldea Bilbo inguruko jendeak bultzatu zuen, inguru horretan katalan asko bizi baitira.

**> ANTZERKIA** Itsaso Esteban Durangoko Karrika antzerki taldearen eta Bartolome Ertzilla Musika Eskolaren elkarlanetik sortutako *Deshakespeareazioa* antzezlanaren estreinaldiko emanaldi biak hartuko ditu, gaur eta bihar, 20:00etan, San Agustin kulturgunean.

2016ko azaroan, Plateruenak antolaturiko *Hitzari Gorazarre* ekimenaren barruan eskaini zuen Karrikak *Deshakespeareazioa* obraren lagin bat lehenegoz, eta Durangoko Azokan ere izan zen ikusgai. Obra labur hura berrartu, eta haren dramaturgia moldatu dute Jose Martin Urrutia *Txotxe*-ren zuzendaritzagaz. William Shakespearearen XVI. mendeko bizitzara bidaia bat proposatuko diete ikusleei. Karrikako taldekideen eszenografiagaz irudikatutako Londresko azoka batean gertatzen da istorioa.

Shakespearearen *Hamlet* eta *Uda gau bateko ametsa* obretako testuak baliatu dituzte, besteak beste, komedia eta drama uztartzen dituen antzezlan hau sortzeko. Luzea eta sakona izan da Karrikak obra hau sortzeko burutu duen prozesua: Shakespearearen literaturari eta istoriari buruzko informazioa batu eta euskaratutako testuak lortu edo moldatzea lan handia izan da.

## ‘Deshakespeareazioa’ antzezlan estreinatuko dute Karrikak eta Bartolome Ertzillak, gaur

Durangoko San Agustinen eskainiko dute, gaur eta bihar, elkarregaz sorturiko ‘Deshakespeareazioa’ obra



Karrikako aktoreak eta Bartolome Ertzillako musikariak batuta, 24 dira emanaldian parte hartzen duten artistak.

Karrikaren antzerki lanari Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolako ikasle talde baten lana batu zaio, Eunat Zarabeitia irakaslearen eskutik. Ikuskizunari zuzeneko musika gehitu diote 15 eta 19 urte arteko Musika Eskolako biolin, biola eta biolontxelo ikasleek.

Karrika taldeko aktoreak eta Bartolome Ertzillako musikariak batuta, guztira 24 lagun igoko dira, gaur eta bihar, San

Agustingo agertokian *Deshakespeareazioa* eskaintzeko.

Durangoko musika eskolako ikasleak Aste Santuan batu zitzaizkien Karrikako kideei, eta ordutik burutu duten elkarlana esperientzia oso positiboa izan dela adierazi dute talde bien ordezkariak. Aktoreen eta musikarien oholtzako interakzioa oso aberasgarria eta dibertigarria dela azpimarratu dute obraren sortzaileek.



Londresko XVI. mendeko azoka bat irudikatuko dute oholtzan.

## AC/DCren bertsioak umeentzako kontzertu berezian, Plateruenean

Urriaren 1ean, 18:00etan, izango da emanaldia, Durangoko Plateruenean

**> MUSIKA** I. E. Urteak dira Berbaro Elkartearen eskutik etxeko txikienei zuzenduriko askotariko hitzorduak hartzen dituen Durangoko Plateruenean. Ikasurte honetan, gainera, umeei zuzenduriko proposamen berritzaile bat dakar Kafe Antzokiak: umeak musikazaletu eta helduak eta umeak musikaren bitartez harremanetan ipintzea helburua duen *Rockin' bizi family sessions*.

### Rock taldeen bertsioak

Besteak beste, AC/DC, Ramones, The Beatles eta Barricada rock talde ezagunen musika etxeko txikienei hurreratzea da *Rockin' bizi family sessions* ekimenaren helburua, eta talde mitikoen bertsioak egiten dituzten taldeak gonbidatuko dituzte parte hartzera. Lehenengo emanaldia Sparto taldeak eskainiko du.

Hainbat berezitasun izango dituzte *Rockin' bizi family sessions* ekimeneko emanaldiek: entzuleen parte handi bat umeak izango direla aintzat hartuta, ohikoa baino bolumen

baxuagoagaz egingo dute, eta Nerea Elias “rockaren andereño” rolean jardungo da. Talde bakoitzaren inguruko azalpenak emango ditu, bideoak baliatuz, besteak beste.



Sparto taldeak AC/DC taldearen bertsioen kontzertua eskainiko du, etzi.

Iluntze eta gauetako ohiko kultur eskaintza osatu eta Durangoko Plateruena bestelako publikoentzat erakargarri egitea helburu duen beste ekimen bat ere abiatuko dute, domekan. Iaz estreinatu zuten *Aperitifa Sessions*, 13:00etako kontzertuen zikloa. Ziklo horren barruko urriko eta azaroko hitzorduak publikatu dituzte. Urriaren 1ean Borja Estankona arituko da, eta azaroaren 5ean, Mikel Uraken.

## Lau emanaldi eta erakusketa bat, Ahotsenearen urtebetetzerako

**> DURANGOKO AZOKA** I. E. Ahotsenea gunearen 10. urteurrena ospatzeko ekimen berria eskainiko du, abendura bitartean, Durangoko Azokak. Musika eta literatura uztartzen dituzten lau emanaldi eta argazki erakusketa ibiltari bat antolatu dituzte Tafallan, Gasteizen, Azpeitian eta Bilbon. Besteak beste, Anarik, Gorka Urbizuk, Keu Agirretxeak eta Gotzon Barandiaranek hartuko dute parte emanaldietan. Bariku honetan, irailaren 29an, 20:30ean, Tafalla kulturgunean izango da lehenengo emanaldia, Anari eta Jon Basagurenaren eskutik.

Txelu Angoitia durangorak, Saioa Cabañas *Gauilunak* eta Joseba Barrenetxeak hamarkada honetan Ahotse-nea gunean egindako 25 argazki osatuko dute, bestalde, erakusketa ibiltaria.

# Asteburuan gai sozialei buruzko zinema zikloa izango da Arriolan

Bilboko Zinema Ikusezina jaialdiko hainbat pelikula izango dira ikusgai

**> ZINEMA** Itsaso Esteban Ohiko zinema karteldegia ordez, Bilboko Zinema Ikusezina Nazioarteko Jaialdiko filmak eskainiko ditu Elorrioko Arriola zinema-aretoako pantailak, asteburu honetan.

Kolonbiako bake prozesuari buruzko *El silencio de los fusiles* filmak abiatuko du zikloa. Bake akordio historikoa lortu arte negoziatioetan jardun ziren Jose Manuel Santos Kolonbiako presidentearen eta Timochenko

FARC gerrillen buruzagiaren bizipenak jasotzen ditu Natalia Orozcok zuzenduriko pelikulak. Domekan, 20:00etan, beste sei film emango dituzte Arriolan; euskal baleazaleei buruzko *Korronteari aurre*. *Euskal balea-*

*zaleak Islandian*; Kurdistanen kokaturiko *Tú, siéntate*; Sahararrak protagonista dituen *Skeikima*; *Si a la vida, no a la represa* guatemalarrak; *¿Nos saludamos?* animazioko lana, eta *Refugee blues* emango dituzte.

Astelehenean, *El mundo entero*; *56*; *Historias para contar*; *The kalasha and the crescent*, eta *One minute* izenburuko filmak izango dira Elorriko ikusgai. Aniztasuna eta konpromiso soziala bultzatzen dituztelako hautaturiko filmak dira guztiak.

## GEURE DURANGALDEA

**FERNAN RUIZ LARRINGAN**

Euskaltzalea



### Gurariak

Sentibera da, oso, hondamendi, gatazka eta, batez ere, gizon-emaumeon arteko indarkeriarekin. Sasoiotan dabilen haizeak, bada, ez dio mesederik egiten. Etxe barruan barreiatzen ari dela sumatzen du, pasillora, ezkaratzera... Haize kutsatu gehiago sartu ez dakion, etxea ez aireztatzea erabaki du, larrialdia pasatu artean, behintzat. Alperrik, ondotox daki, gaur egun, hari mehe edota espazioko sateliteen bitartez iritsi eta itsatsi ohi zaigula ia dena, zikina, ederra, hatsa, pozgarria, ernegua... Oraingoan, Mexikoko lurrikarek eta Karibe aldeko haizete izugarriek eragindako hondamendiak asaldatu du; militarren hizkuntza erabiltzen ari diren agintarien jarrerak kildu du. Bata, klima aldaketari eta lurrari ematen diogun tratu txarrari egozten die, eta bestea, lurralde bat askatzeko adorea sortzen duen berotze efektuari. Eta han dago, bunker bilakatu duen etxe barrutik irten barik.

Jasangaitza egiten zaio independentisten eta imperialista zapaltzaileen arteko gatazka, batzuen matxinada eta besteen indar armatuen erakustaldia. Jasanezina egiten zaio ikustea gure herriaren independentzia marrazteko tintarik gabeko boligrafoa erabiltzen dutela/dugula. Eta inbidiaz dago hurbil sentitzen dituen ekialdeko herriek ausardia erakutsi eta jakin dutelako tinta jario ederraz euren askatasunaren mapa marrazten.

Euskal bidea topatzen ari ei dira batzuk, eta iragan mendeen sortutako GPS aurreratuak erabilia ere, oraindik galduta dabilta noranzkoa ezin aurkitu. Gurariak gurari, GPSa eguneratu eta tintadun boligrafoa erabiltzen hasi arte, euskararen bidea dugu lehentasun.

Euskararen bidea da handia, eta dantzari dantza, Deshakespeareazioa da, kargak eta deskargak, paperezko txoriak, ezkatik; kolosala izango da.



Kolonbiako bake prozesuari buruzko 'El silencio de los fusiles' film luzea emango dute, bihar, 22:00etan, Elorrioko Arriolan.

## 'Harriaren hiztegia' Zornotza Aretoan

Antzoki horretako kurtsoko lehenengo saioa da

**> MUSIKA** I. E. Bernardo Atxagaren hitzekin eta Jabier Muguruzaren musikagaz sortutako *Harriaren hiztegia* diskoaren aurkezpena egingo dute urriaren 6an, 20:00etan, Zornotza Aretoan. Iaz kaleratu zuten bederatzikantz osaturiko disko hori, umeei zuzendurikoa, eta sei urtetik gorakoentzako kontzertuan eskainiko dute, Zornotzan.

Atxagaren hitzekin eta Jabier Muguruzaren musikagaz sorturiko diskoa aurkeztuko dute

Atxagaren letrak dituen diskoaren grabaketan aritutako Naroa Zamora eta Daniela Etxebarria neskatoek kantatuko dute Zornotzako emanaldian. Zamoraren eta Etxebarriaren aho-tsei laguntzen, Txema Garcés baxuagaz arituko da, Mitxel Longarón bateriagaz, eta Jon Mari Beasain gitarragaz.

Datorren barikuko emanaldi hori izango da Zornotza Aretoan ikasturte berrian egingo duten lehenengoa. Datorren barikuko horrez gain, urte amaierara arte beste bederatzikantz hitzordu jasotzen dituen programazioa plazaratu du Zornotza Aretoak, musika, dantza zein antzerkia gozatzeko proposamenekin.

## Hirugarren egin zuen Ugartetxeak Baigorri

Alaia Martin gailendu zen irailaren 23ko saioan

**> BERTSOLARITZA** I. E. 712 puntu batuta, Alaia Martin bertsolari gipuzkoarra izan zen Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehenengo final-laurdeneko irabazlea. Irailaren 23ko saio hori irabazita, beraz, Martin zuzenean sailkatu da txapelketako finalaurrekoetarako.

600 bertsozale baino gehiago elkartu ziren Bertsolari Txapelketako lehenengo saio horretan, eta Beñat Ugartetxea mallabitarra izan zen bertan parte hartu zuen Durangaldeko bertsolari bakarra. 631 puntu eta erdi eskuratu zituen, eta hirugarren sailkatu zen.

Asteburu honetan jokatu dituzte txapelketako bigarren

eta hirugarren final-laurdenak, Seguran eta Leitza. Saio horietan, baina, ez du Durangaldeko bertsolari batek ere kantatuko.

Eneko Abasolo *Abarkas* iurretarra eta Miren Amuriza berriztarra izango dira Txapelketa Nagusian bidea hasiko duten Durangaldeko hurrengo bertsolariak. Urriaren 7an, 17:00etan, Zallako Mimetz pilotalekuan parte hartuko dute.

Urriaren 7an, Eneko Abasolo 'Abarkas'-ek eta Miren Amurizak kantatuko dute Zallako saioan

**Deshakespeareazioa**  
Karrika antzerki taldea eta Musika Eskolako Soka Taldea

Irailaren 29an eta 30ean  
20:00etan

Sanagustinalde, 12 - Tel.: 946 030 021  
sanagustin@durango.eus

San Agustín KULTUR GUINEA

**PLATERUENA** Durangoko Kafe Antzokia [www.plateruena.eus](http://www.plateruena.eus)  
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

**JAT ETX EA**  
EGUNEKO MENUA  
OSPAKIZUN BEREZIAK

URRIAK 1  
13:00etan  
**BORJA ESTANKONA**  
APERITIFA SESSION

URRIAK 1  
18:00etan  
**ROCKIN' BIZI AC/DC**  
HAURRENTZAKO EKINTZA

URRIAK 3  
18:00etan  
**AIKO IKASTAROA**  
DANTZA



Dani Crespo, Marcos Melgar, Josu Cristobal eta Georgy Ascargorta gazteak parkourrak elkartu ditu, eta Elorrioren ez ezik Durangaldeko hainbat herritan ere praktikatzeko dute.

## “Bat-batean erronka posible bat ikusi eta arratsalde osoa eman dezakegu saiatzen”

Parkourra praktikatzeko aukera non, han ibiltzen dira gora eta behera Elorrioko lau gazteak

**> PARKOURRA** Joseba Derteano Begiratzeko moduan dago kontua. Plazako eserlekua arrisku-salto bat egiteko osagaia bihurtu daiteke Elorrioko lau gazterentzat. Edo hiru metroko pareta, gaindiezinezko oztopo dirudiena, igo beharreko erronka moduan ikusten dute. Marcos Melgar (2000), Georgy Ascargorta (1997), Josu Cristobal (1999) eta Dani Crespo (2000) gazteek beren afizioaren ikuspuntutik begiratzen diete kaleari eta munduari. Inguruak desafio geometriko tentagarritz beteta daude eurentzat. Parkourra gustatzen zaie eta hark elkartu ditu. Elkarregaz praktikatzeko dute eta beren bizitzako parte bihurtu da. “Gu ez gara

beren-beregi entrenatzeko gertzen. Kuadrilla moduan irteten gara eta, bat-batean, erronka posible bat ikusi eta arratsalde osoa bertan eman dezakegu”, Ascargortaren berbetan.

A puntutik B punturako desplazamendua gauzatzeko teknikari eta ezinezkoak diruditen ibilbideak posible egitearen arteari deitzen zaio parkourra. Eta lau gazteek edonon ikusten dute beren artea garatzeko desafioa. “Jendeak hesi bat dakusan tokian guk salto edo truko posible bat ikusten dugu. Beti begira gabiltza. Baina ez da nahita egiten dugun zerbait, berezkoa dugu. Lortu zein ez, saiatzea da kontua. Batak bestearengandik ikasten dugu eta

elkarri laguntzen diogu, azkenean lortu arte. Komunitate bat gara”, azaldu dute Cristobalek eta Crespok. Eta horretan ematen dituzte asteko ordu asko, “gura baino gutxiago” hala ere, Ascargortaren esanetan.

Urte bi inguru joan dira parkourra serio hartu zutenetik. Pasioa aurretik dator. Cristobalek gogoan du umetan koltxoiak eramaten zituztela lagunekin zuten txabolara, eta han jauzika ibiltzen zirela. Ascargortak parkourreko lehenengo bideoa ikusi zuenean, “nik hori egin gura dut”, erabaki zuen.

**Parkourra Durangaldean** Oraingoz, parkourrak ez du jarraitzaile askorik Durangal-

dean. Beste durangar bi ezagutzen dituzte. Topaketak eta txapelketak —*free running* izeneko diziplinan— Euskal Herrikan kanpora dira gehienak. Bilbon egiten direnak dira gertukoenak. Baina, euren ekimenez, topaketa moduko bi antolatuta izan dituzte Elorrioren. Azkena, martxoan, Kirol Astearen barruan. Plazan egitura bat jarri zuten, eta hantxe aritu ziren. “Bilboko eta Donostiako jendea etorri zen”, gogoratu du Melgarrek. Ekitaldi aberasgarriak dira, “besteengandik ikasteko eta esperientzia pilatzeko”. Eta, jakina, eguna beren afizio bera partekatzen dutenekin igarotzeko “ilusio berezia” eragiten die.

Elorrio da euren inguru naturala, baina “oso ustiatuta” daukatela diote. Beraz, Durangon, Traña-Matienan (osasun zentro pareko plazan) edo Zorrotzan (Zelaieta parkean) aritu izan dira.

Diziplina arriskutsua al da? Arriskutsutzat zer hartzen denaren arabera. Erori barik ikastea “ezinezkoa” dela diote. Kolpeak eta ubelduak parkourraren parte dira. Gehiegizko arriskua senak ekiditen du. “Arrisku handiegia ikusten badugu ez gara saiatzen”, azaldu dute gazteek.

### Afizioa ogibide

Afizioa ogibide bihurtzea gustatuko litzaiekeen galdetuta “bai” diote. Laurek aho batez eta aldi berean emandako erantzuna da. Ascargortak, taldeko nagusienak, Art Of Motion lehiaketa prestigiotsuan parte hartu gura du, esaterako. Bere bideorik onenak bidaliko ditu, hautatuen zerrendan sartuko duten esperantzaz.



Astean ordu asko ematen dituzte beren afizioa praktikatzeko.



Josu Cristobal parkour ariketa bateko sekuentzian.



Marcos Melgar bere erreperitorioko jauzi bat gauzatzen.

# Durangoko Kulturalak indartsu hasi du liga eta Hirugarren Mailako liderra da

Iaz igoera fasea jokatu zuen eta aurten bide beretik edo hobetik ekin dio denboraldiari



Kulturala gol gutxi jasotzen dituen taldea da; bost partidutik hirutan hutsean eutsi diote ateari. Durangoko Kulturala.

**> FUTBOLA** J.D. Hirugarren Mailako bost jardunaldi joan direnean, Durangoko Kulturala sailkapeneko buruan dago. Iaz igoera fasea jokatu zuten eta aurten bide beretik edo hobetik hasi dira. Durangoko taldearen sasoi onaren isla da

Errege Kopan egindako lan bikaina ere. Torrelavegako Gimnastica kanporatu ostean, maila bat gorago dabilen Elx-i hortzak erakutsi zizkion.

Kulturalak hamar bat jokalaria berri ditu aurten. Taldea osatzerako orduan denak "ideia eta

sentsibilizazio berekoak" izatea bilatu dute jokalaria bakoitzaren "kalitate edo errendimendua gainera", Igor Nuñez entrenatzailearen esanetan. Gainera, "jokalariek euren artean familia indartsu bat osatzen duten zortea dugu", gehitu du.

Beñat Alberdi eta Unai Arizmendiarrrieta punta erdiak, eta Jon Aranda zentrala dira talde nagusira batu diren eta sarritan titular jokatzeko duten hiru adibide. Lehenengo biak harrobiko jokalaria dira. Alberdi Durangora bueltan da Santutxutik igaro ostean. Arizmendiarrrieten kasua azpimarratzekoa da. Iazko aurre-denboraldian lesio larria izan zuen belaunean, gazteen taldetik saltoa emateko prest zegoela. Urte osoa erreku-peratzen emanda, aurten "ate nagusitik" itzuli dela onartu du Nuñezek. "Meritu handia du bere gaztetasuna kontuan hartuta. Heldutasuna eta dohainak erakutsi ditu", azaldu du.

Kulturalak gol gutxi jasotzen ditu. Azken urteetan errepikatzen den joera da. Aurten bostetik hirutan hutsean eutsi diote ateari. Asteburuan Portugalete bisitatuko dute.

## ADITUAREN TXOKOA

**JUAN CARLOS PEREZ VILLUMBRALES**

Areto-futbola



### Izar nagusia, Elorrioren

Denboraldi berria izar nagusi batekin hasi da. Izan ere, Durangaldeak talde bat du areto-futboleko brontzeko mailan: Elorrioko Parra Taberna. Sari hau ekarri duen urteetako ahaleginak eta dedikazioak izen propio bat du: Iker. Mallabiko taldeagaz lehen urratsak ematen ari nintzenean ezagutu nuen. Kurutzia taldea zuzentzen zuen. Oraindik gogoratzen ditut oinarriko kontuei buruz (aldaketak, kokapena...) eman zizkidan aholkuak. Beti atsegin eta laguntzeko prest. Entrenatzaile titulua aterata, Sestaon bigarren entrenatzaile aritu zen, trebatzeko. Itzultzean, Elorrioren kirol egitasmoa martxan jartzeko prest zegoen eta lortu zuen. Orain merezitako saria dute Bigarren B Mailan jokatu.

Elorrioko taldea apurtxo bat geure sentitu beharko genuke eskualdeko talde denok, eta behar duenerako euren zerbitzura jarri beharko ginatke, gure eremuan kirol hau sustatzeko aukera bikaina baita.

Elorrioren igoerak eta Presion Break taldeak Hirugarren Mailari uko egin izanak, Sasikoa bakarrik utzi du maila horretan. Euskal Ligan Mallabia eta Presion Break dabilta. Maila Gorenean Elorri B dugu ordezkari bakarra. Lehenengo Erregionalen hiru talde ditugu: Mendibeltz, Racing Tolosa eta Abadiño Txopoa. Bigarren Erregionalean Gu Lagunak taldea arituko da. Emakumeetan Beti Gol eta Sasikoa taldeek darraite. Aipatzekoa da Mendibeltz eta Mallabik gazteen taldea sortzea lortu dutela.

# Lau t'erdiko finalerdia hartuko du Berrizek

Master Cup Emakumeen txapelketa aurkeztu dute

**> PILOTA** J. D. Binakako estreinaldi arrakastatsuen ostean, Emakumeen Master Cup esku pilota txapelketa bueltan dator. Oraingoan, binaka barik, buruz buru arituko dira, lau t'erdien barruan. Finalerdiak Berrizen jokatu direla aurreratu zuten antolatzaileek eguaztean Bilbon emandako prentsaurrekoan. Azaroaren 26an izango dira.

Binakako txapelketaren antzerka maila bi daude eta federatuek zein ez federatuek parte hartu dezakete nazionalitatea

edozein dela ere. Izen-emateak urriaren 15era arte iraungo du eta [www.emakumemastercup.eus](http://www.emakumemastercup.eus) webgunearen bidez egin daiteke.

Finalak Sopelan jokatu dituzte, abenduaren 6an, eta ETBk zuzenean eskainiko ditu.

### Aurrekari onak

Master Cup-a emakumeen esku pilotako txapelketarik garrantzitsuena bihurtu da. Binakako txapelketako finalak Zornotzan jokatu zituzten, pilotaleku batean. Olatz Arrizabalagak eta Leire Etxanizek irabazi zuten.



Espinar, Goiria eta Arrizabalaga pilotariak antolatzaileekin, aurkezpenean.



**HEKi**  
HERRI KIROL KLUBA

Tel.: 656 782 552  
[heki.iurreta@gmail.com](mailto:heki.iurreta@gmail.com)

Heki Herri Kirol Kluba

Umeentzako  
erakustaldiak eta antolaketa

UDAKO 3. ARGAZKI LEHIAKETA

Eman zure botoa udako  
argazki lehiaketan

- Urriaren 2tik 15era -

Bozkatu [www.anboto.org](http://www.anboto.org) webgunean

ANTOLATZAILEA

**anboto**

LAGUNTZAILEAK

**EROSKI** / **Bidaok**

**EROSKI**

**elaia**



**BELDUR BARIK 2017**

**ZABALDU ZURE BELDUR BARIK JARRERA!**

**WWW.BELDURBARIK.ORG**

**DURANGALDEA BELDUR BARIK LEHIAKETA**

### \*LEHIAKETA

**Nori zuzendua:** Abadiño, Berriz, Durango, Elorrio, Iurreta eta Zaldibarren erroldatutako 12-26 urteko gazteei, ikasten edo herri horietako elkarteren batean parte hartzen dutenei.

### SARIAK

**Kategoria 12-17 urte Lanik onena 300€ Aipamen berezia 100€**

**Kategoria 18-26 urte Lanik onena 300€ Aipamen berezia 100€**

**Lanak jasotzeko epea: Azaroak 13**

\*Durangaldeko lehiaketan aurkeztutako lanek zuzenean parte hartuko dute EAE-ko lehiaketan.



**#BBTOPAKETA**  
Eibarren, 2017ko abenduaren 2an  
Eibar, 2 de diciembre de 2017



**#BBLEHIAKETA**  
2017ko irailaren 11tik azaroaren 13ra arte  
del 11 de septiembre al 13 de noviembre de 2017

Parte hartu Lehiaketan eta etorri Topaketara! Abenduaren 2an, Eibarren.  
Denok indarkeria sexistaren aurka! Sari banaketa, tailerrak, erakusketak...  
Informazio osoa [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org)-en eta gure sare sozialetan.

#### ANTOLATZAZALEA



#### BULTZATZAZALEAK



#### LAGUNTZAZALEAK



# Mendiaz eta jaiaz gozatzeko aukera Anbotoko Kilometro Bertikalean, bihar

300 korrikalarik parte hartuko dute 14:00etan hasiko den mendi lasterketako 10. edizioan

**> MENDIA** Maialen Zuazubiskar Orain asteburu bi, Axpen antolatzen duten Sorginen Lasterkaren hamargarren urteurrena ospatu zuten, eta zapatu honetan Anbotoko Kilometro Bertikalarena ospatuko dute. “Zapatuko edizio honi jai kutsu bat ematen ahalegindu gara, eta Arrazolara datorren orok egun on bat pasatzea dugu helburu”, adierazi du Aitor Belar Asuntze Mendi taldeko kideak. “Lasterketa baten hamargarren urteurrena ospatzea gauza handia da, eta, horregatik, aurtengo probak ospakizunetik asko izango du”, gaineratu du.

Egitarau berezi batez hartuko dute Anbotoko Kilometro Bertikalaren hamargarren edizioa. Umeek puzgarriak eta eskalatzeko gune bat izango dute, eta, horrez gain, DJ batek arratsaldea girotuko duela esan dute antolakuntzako kideek.

Lasterketan ere berrikuntzak izango dituztela jakitera eman dute Asuntze Mendi Tal-

dekoek. Ohikoa den moduan, 14:00etan hasiko da lasterketa, baina aurtengo Mendi Lasterketa Bertikalaren Euskal Herriko Txapelketa izango da.

## 300 korrikalari

Partaideei dagokienez, aurtengoan ere 300 korrikalarik parte hartuko dute 3,8 kilometroko eta 1.092 metroko desnibel positiboa duen lasterketan.

Gizonezkoetan Aitor Osa da faborito nagusietako bat. 2014, 2015 eta 2016ko irabazleak aurretik beste inork lortu bako marka ezarri dezake: Anbotoko Kilometro Bertikalaren lau edizio irabaztea. “Aitor Osa oso ondo dabil, eta zapatuko lasterketa irabazteko faborito nagusienerikoa da”, esan du Belarrek.

Osa sasoi betean dagola ezin daiteke zalantzan jarri, joan zen asteburuan Beriain-Uharte Arakilgo Kilometro Bertikala irabaztea lortu baitzuen.

Hala ere, aurkariek ez diote garaipena erraz jarriko eta mai-



14:00etan hasiko da Anbotoko Kilometro Bertikala.

la handiko korrikalarien aurka lehiatu beharko du. Besteak beste, Iñigo Lariz eta Julen Martinez De Estibariz egongo dira Arrazolako irteera lerroan.

Emakumezkoek dagokienez, Maria Zorroza eta Oihana Azkorbeitiaren arteko lehia estua aurreikusten dute antolatzaileek. “Iaz Mariak segundo gutxi batzuegatik ez zuen hautsi Oihana Kortazarrek Anboton jarrita duen errekorra. Eta, aurtengoan, borroka horretan egongo dela ziur gaude”, adierazi du Aitor Belarrek.

Bestalde, Oihana Azkorbeitia abadiñarrak denboraldi honetan egin dituen “erakustal-

DJa eta umeentzako puzgarriak eta eskalatzeko gunea egongo dira Arrazolan

diak ikusita”, emakumezkoen garaipena “garesti” egongo dela aitortu dute Asuntze Mendi taldeko kideek.

Sariei dagokienez, gizonezkoek eta emakumezkoek sari berak izango dituztela jakitera eman dute.

## Ziklo berria

Horrez gain, aurtengo lasterketaren ondoren, ziklo berri baten aurrean daudela jakitera eman dute Kilometro Bertikalako antolatzaileek. “Datorren ediziotik aurrera, lasterketan zerbait berria aportatzen ahaleginduko gara. Hala ere, lehenengo, aurtengo edizioaz gozatu behar du”, bukatu du Aitor Belarrek.



Aitor Mimenza erdian eta Ekaitz Kortazar bere ezkerretara.

# Mimenza eta Kortazar onenak kostaldean

Lekitto-Ondarru proban podiumera igo dira

## > KORRIKA J. D.

Lekitto-Ondarru 16 kilometroko lasterketak Durango Kirol Taldeko korrikalari bi izan zuten protagonista joan zen asteburuan: Aitor Mimenza elorriarrak proba irabazi zuen (52.41) eta Ekaitz Kortazar durangarra bigarren (53.43) sailkatu zen. Mimenzak bigarren urtez ja-

rraian irabazi du kostaldeko lasterketa hori.

## Frades eta Bizkarra

Triatloian ere badago zer ospatua. Gurutze Frades iurretarra bigarren izan zen Augustako (AEB) Ironmanean eta Gorka Bizkarra mañariarrak Llanese-ko triatloia irabazi du.

# Sei urteren ostean, berriro egingo dute Aramotzeko mendi lasterketa

Zapatuan 9:00etan hasiko da mendi lasterketa, eta BTT proba, 10:00etan

## > MENDIA M. Z.

2011z geroztik egin barik egon den Aramotz mendi lasterketa antolatu dute berriro ere Zornotza Mendi Taldeko kideek. Zornotzako Mendi Astearen barruan antolatu duten lasterketa zapatuan, 9:00etan, hasiko

da. “Herriko gazteak lasterketa bat antolatzeko gogotsu zeuden, eta Mendi Astearen barruan Aramotzeko mendi lasterketa egitea aukera ezin hobea zela iruditu zitzaigun”, adierazi du Igor Lopez Zornotza Mendi Taldeko kideak.

27 kilometroko eta 1.600 metroko desnibel positiboa duen lasterketa “jai-giroan” antolatu duten lasterketa dela jakitera eman du Lopezek. Eta garrantzitsuenak jendeak lasterketa herriko horretan disfrutatzea dela adierazi du.

Igor Lopezek jakitera eman duenez, Aramotz mendi lasterketan 200 korrikalarik parte hartu dezakete, eta izen-ematea aurrez zein egunean bertan egin daiteke.

Mendi lasterketaz gain, bizikleta martxa ere antolatu dute zapatutarako, Zornotzan. Bizikleta martxa 35 kilometrokoa izango da eta 1.000 metroko desnibel positiboa izango du.

Horrez gain, goiz osoan txosna eta umeentzako jolasak egongo direla jakitera eman dute antolatzaileek.



Aramotzeko mendi lasterketa 9:00etan hasiko da.



# JATETXE GIDA



## ••• **KANBIO JATETXEA**

- San Migel Dueda auzoa,
- AMOREBIETA-ETXANO
- **Tel.: 946 730 033**
- Aste bitarteko menua, asteburuko menua, menu berezia eta karta.



## ••• **PLATERUENA** Kafe Antzokia

- Landako etorbidea, 4 DURANGO
- **Tel.: 946 030 300**
- **www.plateruena.eus**
- Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak, taldeentzakoak eta ospakizunak.



## ••• **KOBIKA JATETXEA**

- San Ignazio, 8 DURANGO
- **Tel.: 946810 003**
- Egile sukaldaritza eta tradizionala.
- Menu bereziak eta karta.



## ••• **IKUSPEGI JATETXEA**

- Goiuria, 12 IURRETA
- **Tel.: 946 811 082**
- **www.ikuspegi.com**
- Sukaldaritza tradizionala autore sukaldaritza ukituarekin.
- Durangaldeko ikuspegi ederrak.



## ••• **OLAJAUREGI JATETXEA**

- Kurutziaga Kalea, 52 DURANGO
- **Tel.: 946 200 864**
- **www.olajauregi-jatetxea.com**
- Eguneko menuak, bereziak, taldeentzakoak eta ospakizunak.
- Egunero zabalik.



## ••• **IBARRA SAGARDOTEGI-GARAGARDOTEGIA**

- Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA
- **www.ibarra-sagardotegi.com**
- **Tel.: 946 731 100**

- **20. urteurrena.** Orain garagardotegia eta sagardotegia; menu ezberdinak. Gure upategian egindako sagardoa.
- Asteazken zehar soilik erreserbentzako zabalitzen da.



## **Anbotorenlagunak**

Ibarra Sagardotegi-Garagardotegiaren eskutik bi pertsonentzako menua zozkatuko dugu Anbotoren Lagunen artean. Hile honetako irabazlea: **Jose Mari Azkarate Lupiola**

**ZORTE  
ON!**



# anboto.iragarki**laburrak**.com

1 HIGIEZINAK	5 IBILGAILUAK
2 TEKNOLOGIA	6 HARREMANAK
3 LANA/NEGOZIOAK	7 AISIA/KIROLA
4 DENETARIK	8 FAMILIA/ETXEA

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean.

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

**Interneten eta paperean, doan:** Partikularrentzat - Erregistratu [www.anboto.iragarkiaburrak.com](http://www.anboto.iragarkiaburrak.com) webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zaio eta bertan anboto aukeratu) edo bidali mezua: [anboto@anboto.org](mailto:anboto@anboto.org).

**Paperean, ordainduta:** Enpresentzat - Iragarki laburretatik bereizuta eta lauki batean nabarmenduta. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

### Higiezinak

#### ETXEBIZITZAK

##### SALDU

**Zornotza.** 3 logela, egongela 1, sukaldia, 2 bainugela, ganbara, balkoia, gasoil berogailua eta teilatua berria. 345 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin. Tel.: 695-70 18 58. Posta: [idurre13@hotmail.com](mailto:idurre13@hotmail.com).

##### EROSI

**Durungaldea.** Durungaldean berrizteko dagoen baserri baten bila nabil, lursail apur batekin. Ez zait inporta baserria zein egoeratan dagoen. Gehienez, 100.000 euro ordaintzeko prest. Tel.: 618-93 62 14 (Mikel)

##### ERRENTAN EMAN

**Berriz.** Baserri bateko lehen solairua alokagai dago Sarrian (Berriz), lur saila barne. Tel.: 655-72 52 52 / 652-75 47 23

**Elorrio.** 3 logela, 2 komun, igogailua, garajea txokoarekin eta berdegunea. Oso leku onean. Harremanetarako, Tel.: 675-70 15 30.

##### ERRENTAN HARTU

**Durungaldea.** 24 urteko neska gazte eta arduratsua naiz, Zornotzan lanean hasi berri dena eta han inguruan pisu bila nabil. Durango-Gernika-Zornotza inguruan bila hastekotan. Pisua edota pisukide bila nabil. Interesatzen bazaizu, edo interesa dakiokkeen inor ezagutuko bazenu, deitu! Tel.: 638-90 86 10.

### GARAJE / TRASTEROAK

##### ERRENTAN EMAN

**Otxandio.** Otxandion garaje itxia alokagai. Tel.: 675-71 72 83.

### Lana - negozioak

#### LAN ESKARIAK

##### OSTALARITZA

**Durungaldea.** Lan bila nabil zerbitzari moduan. Esperientzia daukat. Beste lan batzuk egiteko prest ere banago. Tel.: 651-64 68 82.

##### ETXEKO LANAK

**Durango.** Esperientzia handiko emakumeak plantxa zein etxeko lanak orduka egiteko eskaintzen du bere burua. Tel.: 645 70 68 39.

##### PERTSONAK ZAINDU

**Elorrio.** Elorrioko emakume euskalduna eta esperientziaduna goizetan haurrak esnatu, gosaltzen eman eta eskolara eramateko prest (Elorrioren bertan). Interesa baduzu, deituidazu: 658 759 264.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Esperientzia daukat. Tel.: 661-12 73 28.

**Durungaldea.** Neska gaztea lan bila dabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanak egiten ere. Barneko zein kanpoko langilea, eskarmentu eta erreferentziak. Tel.: 637-16 97 32.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo plantxa egiten. Arratsaldetan egin nahiko nuke lan. Tel.: 697-49 20 58.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan lan egiteko prest. Tel.: 631-85 10 93.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, zein garbiketa lanetan. Kanpoko, barneko zein ordukako langilea. Tel.: 632-92 71 94.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanak egiten. Kanpoko langile moduan edo orduka lan egiteko prest. Baita asteburuetan ere. Tel.: 602-01 24 53.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko, barneko edo ordukako langile moduan aritzeko prest nago. Tel.: 631-69 80 95 / Tel.: 722-56 22 41

**Durungaldea.** Lan bila nabilen gizonezkoa naiz. Prest nago pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, baita garbiketa lanak egiteko ere. Kanpoko, barneko edo ordukako langilea. Tel.: 610-06 70 42

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, zein garbiketa lanetan. Lanaldi osoan, erdian zein orduka. Eskarmentua daukat. Tel.: 689-74 23 57

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, garbiketa lanetan, sukaldari laguntzaile moduan... Lanaldi erdian edo kanpoko langile moduan aritzeko prest. Tel.: 606-87 78 97

**Durungaldea.** Lan bila nabil umeak zaintzen zein etxeetako garbiketa egiten. Esperientzia daukat jantokiko begirale lanetan. Tel.: 688-64 36 28

**Durungaldea.** Neska arduratsua lan bila dabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Tel.: 631-11 07 16

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Orduka

zein gauze lan egiteko prest. Tel.: 612-24 53 26

**Durungaldea.** Lan bila nabil nagusiak edo umeak zaintzen edo garbiketa. Goiz, arratsalde zein egun osoz lan egiteko prest. Esperientzia zabala. Tel.: 632-50 25 01.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, baita garbiketa lanetan ere. Tel.: 632-29 16 73.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Kanpoko, barneko edo ordukako langile moduan. Tel.: 631-11 07 16.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Kanpoko zein barneko langile moduan. Tel.: 602-08 96 62.

**Durungaldea.** Lan bila nabil nagusiak edo umeak zaintzen. Kanpoko zein barneko langile moduan. Egunez zein gauze. Paperak behar bezala ditut. Tel.: 631-90 19 87 / 602-08 96 62.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan. Kanpoko, barneko zein ordukako langile moduan. Tel.: 603-75 05 18.

**Durungaldea.** Lan bila nabil pertsona nagusiak zein umeak zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Barneko, kanpoko edo ordukako langilea. Tel.: 605-22 13 56.

**Durungaldea.** Lan bila nabil nagusiak edo umeak zaintzen. Orduka, barneko edo kanpoko langile moduan. Berehala hasteko moduan. Tel.: 632-44 11 55.

**Durungaldea.** Haurrak zaindu eta klase partikularrak ematen ditut. Hezitzaile moduan lan egin izan dut. Kontaktuan jartzeko: 630-08 02 20.

##### IRAKASKUNTZA

**Durango.** Ingeles klaseak jasotzeko 2 pertsona behar dira, 5 pertsonako taldetxo osatzeko, A2-B1 maila. Astearte eta ostegun arratsaldetan izango lirakeke. 1h 30 minutuko 2 klase astean. Gazte eta helduentzat zuzendua. 2. Ikasturtea izango da aurrekoaren arrakasta ikusita. Informazio gehiago jasotzeko deitu edo whatsapppeatu konpromisorik gabe (Tel.: 645-70 71 24)

**Durango.** LHko ikasleentzat eskola partikularrak ematen ditut arratsaldeetan, liburutegian nahiz nire etxean. Klaseak umeen beharretara diseinatzen ditut. Lehen hezkuntzan graduatua eta egaduna naiz, edozein

adinetako umeekin esperientzia handia duena. Informazio gehiagorik nahi izanez gero, jarri harremanetan: [nereasan17@gmail.com](mailto:nereasan17@gmail.com)

**Elorrio.** Matematikako klase partikularrak ematen ditut DBH 1. eta 2. mailetan. Nire etxean. Banakako zein talde txikietako klaseak. Interesa baduzu, deitu konpromisorik gabe: Tel.: 628-29 48 06.

**Durungaldea.** Euskalduna, eskola partikularrak emateko prest nago. Tel.: 697-32 92 88.

##### GAINERAKOAK

**Durungaldea.** Neska euskalduna eta esperientziaduna enpresa zein autonomoen kontabilitatea, diruzaintza, eramateko prest. Tel.: 635-71 59 28.

**Durungaldea.** Lan bila nabil lorezaintzan, baserriak edo abereak zaintzen, garbiketa lanetan edo gizon nagusiak zaintzen. Tel.: 602-85 05 05.

**Durungaldea.** Lan bila nabil eraikuntza zein lorezaintza lanetan. Baita pertsona nagusiak zaintzen ere. Barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Tel.: 602-83 18 18.

##### LAN ESKAINTZAK

##### OSTALARITZA

**Iurreta.** Zerbitzari bila gabiltza barran eta jangelan lan egiteko. Curriculumak betixu@gmail.com helbidera bidali edo 946-81 78 47 zenbakira deitu.

### Denetarik

#### SALDU / EROSI

**Bi lanpara saltzen ditut.** Logelako lanpara bat eta txoko baterako brontzeko lanpara bat salgai ditut Otxandion. Tel.: 675-71 72 83.

**Egurrezko gurdia salgai.** Idi parearen egurrezko gurdia salgai. Egoera onean eta azken matrikulazioa 1965ean. 700 euro. Argazkiak whatsapp bidez. Tel.: 633 66 64 92.

**Eskuz egindako tokillak.** Eskuz egindako artilezko tapukak, bufandak eta gorroak. Tamaina eta kolore ezberdinetakoak. Enkarguz ere egiten dira. (idatzi mezua edo deitu: 946-58 32 90)

**Hozkailua salgai.** Hozkailu bat salgai dut Durangon, 50 euroren truke. Iozkailua ez dabilen arren, erdi berri dago. Tel.: 636-04 63 18.

**Intxaurrek salgai.** Norberak batu beharreko intxaurrek Mallabian. 2,5 euro batutako kilo bakoitzeko. Ekologikoak dira. Taldean etortzea

posiblea da. Tel.: 675-71 34 01.

**Txokoa.** Durangoko Zingilpurka alkarteko kide izateko partizipazioa salgai 6.000 eurotan. Tel.: 607 30 78 87.

##### EMAN / HARTU

**Artzain-txakurkumeak.** Artzain-txakurkumeak oparitzen dira. Tel.: 688 814 225.

**Bi katakume oparitzen ditut.** Bi katakume zuri erregalaten ditut. Tel.: 722-22 23 38.

##### Familia - etxea

#### ETXERAKO TRESNAK / ALTZARIAK

##### SALDU

**Hozkailu txiki eta berri bat salgai.** Teka markako hozkailu berri eta txiki bat saltzen dut. Aproposa da txokoetan zein ortuetan jartzeko. Tel.: 655-72 56 31.

### Fruta eta barazki arloan lan egingo zenuke jendearekin hartu-eman zuzena duen denda batean?

Deitu 946 817 616 telefonora edota hurbildu Mahats dendara eta hitz egingo dugu

### Sukalde diseinatzaile-saltzailea behar da.

Gutxienez 2-3 urteko esperientzia baloratuko da.

Tel.: 605-74 01 76.

### Abadiñoako Abarketeruena tabernan sukaldaria behar da.

Menuan eta kartan esperientzia izatea baloratuko da. Bidali curriculumak: [abarketeruena@gmail.com](mailto:abarketeruena@gmail.com) helbidera edo deitu 660-18 74 05 zenbakira.

# AGENDA

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.



**Irailaren 29an, 20:30ean, Elorriko Arriolan**

## Sal marina

Agorafobia dauka Marinak, Alanbike antzerki talde bilbotarraren obra honen protagonistak. Etxetik irtetea ekiditen du, eta mundu eroso bat sortu du bere inguruan. Javier Liñerak eta Juana Lorrek zuzenduriko lana da, 16 urtetik gorakoei zuzendurikoa.

## Musika

### :: DURANGO

URRIAREN 1ean

**13:00etan**, Borja Estankona, Plateruenean.

**18:00etan**, Rockin' Bizi ACDC haurrentzako emanaldia, Plateruenean.

### :: ZALDIBAR

IRAILAREN 29an

**22:00etan**, Drop! + Worth It + Golem + Appraise, Gaztetxean.

### :: ZORNOTZA

URRIAREN 6an

**20:00etan**, 'Harriaren hiztegia', Bernardo Atxagaren hitzak eta Jabier Muguruzaren musika, Zornotza Aretoan.

## Jaiak

### :: BERRIZ (Okango, Mikel Deunaren ermita)

IRAILAREN 29an

**19:00etan**, meza. Ondoren, odoloste jana eta bolo txapelketa.

IRAILAREN 30ean

**17:00etan**, ume jolasak.

**18:00etan**, txirrindulari lasterketa herrikoia.

**20:00etan**, Gontzal Mendibil.

URRIAREN 1ean

**08:30ean**, Ibilaldia Berrizko baselizetatik.

**12:00etan**, meza auzoko hildakoen omenez. Iremiñe dantza taldea. Ondoren, Miren Amuriza eta Uxue Alberdiren bertso saioa.

### :: ELORRIO (Kulotxa)

IRAILAREN 30ean

**11:00etan**, txintxaunak, skate parkea, tailerrak eta artisautza azoka.

**14:00etan**, paella erraldoia, bazkari herrikoia.

**17:00etan**, txintxaunak, skate parkea, zumba saioa.

**18:00etan**, txokolatada.

**20:00etan**, Tango y mas taldeagaz kontzertua eta afaria.

**22:00etan**, Laket taldeagaz erromeria.

**23:00etan**, Jkin Alonso DJa, Xelai tabernan.

### :: IURRETA

IRAILAREN 29an

**10:30ean**, dantzari eta agintarien kalejira, Montoitik plazara.

**11:00etan**, meza nagusia.

**11:45ean**, dantzariak.

**12:30ean**, igel txapelketa.

**17:00etan**, Pirritx, Porrotx eta Mari Motots, plazan.

**19:00etan**, Dantzari Dantza eta neskek egindako soka dantza.

**22:00etan**, EKHY taldeagaz dantzaldia, Askondon. Bertso saioa, frontoian (Ametz Arzallus, Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Igor Elortza, Jon Maia eta Unai Iturriaga).

**23:30ean**, Nevadah + Willis Drummond + Bad Sound System, plazan.

IRAILAREN 30ean

**12:30ean**, poteoa.

**14:30ean**, herri bazkaria, Askondon. Jarraian, bingo txapelketa.

**17:30ean**, Maiztegiko umeen zirku ikuskizuna. Ostean, elektrotzaranga Eonian taldeagaz.

**19:00etan**, hilen aldeko meza.

**20:00etan**, erromeria Luhartz taldeagaz.

**22:00etan**, Lekeitioko deabruak ikuskizuna.

**Ondoren**, Luhartz.

**02:00etan**, Ainhua DJa.

### URRIAREN 1ean

**10:00etan**, XVIII Nekazaritza eta Artisau azoka, Andaparapen.

**10:30ean**, Dantzari eta agintarien kalejira, Montoitik plazara.

**11:00etan**, meza nagusia. Ondoren, Dantzari Dantza eta Gorulari dantza.

**12:30ean**, Herri kirol ikuskizuna. Txanpi lehiaketa.

**16:30ean**, bizikleta martxa.

**18:30ean**, dantza saioa. Ondoren, jaietako errifen zotz egitea.

**20:30ean**, herri afaria, Arantzak eta Pantxok alaiturik.

**22:00etan**, jaien amaiera ohiturazko bertsoak kantatuz. Erromeria, gauerdira arte.

### :: ZORNOTZA (Dudea)

IRAILAREN 29an

**20:00etan**, tortilla txapelketa.

**20:30ean**, mus txapelketa azkarra.

**22:30ean**, dantzaldia DJ Bullegaz, eta banakako bolo txapelketa.

IRAILAREN 30ean

**10:00etan**, auzoko ermitetatik ibilaldia.

**12:00etan**, puzgarriak eta umeentzako jolasak.

**13:00etan**, igel txapelketa.

**14:00etan**, bakailao txapelketa.

**17:00etan**, Xaibor.

**17:30ean**, binakako briska txapelketa.

**19:30ean**, iberiar produktuen postuak.

**21:00etan**, afari popularra, Kanbio jatetxean.

**23:00etan**, mexikar gaua Puro Relajo taldeagaz. Ondoren, DJa. Atsedenaldiran, mozorrorik onenaren saria.

### URRIAREN 1ean

**12:00etan**, meza nagusia. Ondoren, luntxa eta abereen erakusketa.

**17:00etan**, bingoa.

**19:00etan**, parrillada, txokolatada eta otzararen zotz egitea.

**20:30ean**, jaien amaiera txapliquekin.



## Antzerkia

### :: DURANGO

IRAILAREN 29an eta 30ean

**20:00etan**, Deshakespeareazioa, San Agustin kulturgunean.

### :: ELORRIO

IRAILAREN 29an

**20:30ean**, Sal marina, Arriolan.



## Erakusketa

### :: DURANGO

URRIAREN 22ra arte

'Durango jaietan' argazki erakusketa, San Agustingo sarreran.

### :: ZORNOTZA

IRAILAREN 30era arte

Bosteko erakusketa, Zelaieta zentroan.



## Berbaldia

### :: DURANGO

URRIAREN 3an

**18:15ean**, Juan Luis Urias osasun ikuskariaren berbaldia: 'Txertoak, argiak eta ilunak', Nagusien zentroan (Pablo Pedro Astarloa 1-2).



## Ikastaroa

### :: ELORRIO

URRIAREN 7an eta 8an

'Jolasaren garrantzia eta honen isla haurraren garapenean' ikastaroa, Alvaro Beñaranen eskutik, Txintxirri ikastolan. Izen-ematea, urriaren 4ra arte, 94 658 22 61 edo idazkaritza@elorrikoikastola.eus.



## ZINEMA

### :: DURANGO ZUGAZA

#### Operación Concha

- barikua 29: 19:30-22:00
- zapatua 30: 19:30-22:30
- domeka 1: 19:00-21:30
- astelehena 2: 18:30-21:00
- martitzena 3: 20:00
- eguaztena 4: 20:00

#### Madre!

- barikua 29: 19:30-22:00
- zapatua 30: 19:30-22:30
- domeka 1: 19:00-21:30
- astelehena 2: 18:30-21:00
- martitzena 3: 20:00
- eguaztena 4: 20:00

#### Jacques

- barikua 29: 19:30-22:00
- zapatua 30: 19:30-22:30
- domeka 1: 19:00-21:30
- astelehena 2: 18:30-21:00

#### Lego ninjago pelikula

- zapatua 30: 17:00
- domeka 1: 17:00

#### Lego ninjago pelikula (gaztelaniaz)

- zapatua 30: 17:00
- domeka 1: 17:00

#### Gatos. Un viaje de vuelta a casa

- zapatua 30: 17:00
- domeka 1: 17:00

#### La promesa (dokumentala)

- eguaztena 4: 20:00

### :: ELORRIO ARRIOLA

#### Cine Invisible (film sozialak)

- zapatua 30: 22:00
- domeka 1: 20:00
- astelehena 2: 20:00

### :: ZORNOTZA ARETOA

#### Detroit

- barikua 29: 20:15
- zapatua 30: 19:30-22:00
- domeka 1: 20:00
- astelehena 22: 20:15

#### Cars 3

- zapatua 30: 17:00
- domeka 1: 17:00

**> BOTIKAK****BARIKUA, 29**  
09:00-09:00**De Diego**  
Intxaurren 22. - Durango**Goiria, Mari Carmen**  
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbitarre poligonoa,  
4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**ZAPATUA, 30**  
09:00-09:00**Balenciaga**  
Ezkurdi plaza 8 - Durango**Goiria, Mari Carmen**  
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-13:30

**Gaztelumendi**  
J.A. Abasolo 2 - Durango**De Diego**  
Intxaurren 22. - Durango**Sagastizabal**  
Askatasun etorb. 19 - Durango**Campillo**  
Montevideo etorb. 24 - Durango**Unamunzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango**Bazan Diaz**  
Uribarri 5 - Durango**Navarro**  
Artekalea 6 - Durango**Bartolome**  
Gabiola 2 - Berriz**Jaio-Olabarrieta**  
(Errekakale 6 - Elorrio)**Eguren, Isabel** (Trafiabarren  
15 - Abadiño)**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**Melero, Rosa Mari**  
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-14:00

**Irigoi**  
Bixente Kapanaga 3 - Iurreta

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbitarre poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**DOMEKA, 1**  
09:00-09:00**Gaztelumendi**  
J.A. Abasolo 2 - Durango**Goiria, Mari Carmen**  
Sabino Arana 6 - Zornotza

09:00-22:00

**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**ASTELEHENA, 2**  
09:00-09:00**Etxebarría**  
Montevideo etorb. 2 - Durango**Melero, Rosa Mari**  
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbitarre poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**MARTITZENA, 3**  
09:00-09:00**Unamunzaga**  
Muruetatorre 2C - Durango**Melero, Rosa Mari**  
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbitarre poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**EGUAZTENA, 4**  
09:00-09:00**Bazan Diaz**  
Uribarri 5 - Durango**Melero, Rosa Mari**  
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbitarre poligonoa, 4 P8, Abadiño**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**EGUENA, 5**  
09:00-09:00**Mugica**  
Andra Maria 9 - Durango**Melero, Rosa Mari**  
San Pedro 31 - Zornotza

09:00-22:00

**Sanchez, Miren Itziar**  
Urbitarre poligonoa, 4 P8, Abadiño**Iruarrizaga, Karmele**  
San Miguel 15 - Zornotza**Sarasketa, Diego**  
Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza**> ZORION AGURRAK**zorionak@anboto.org  
eguzteneko 14.00ak arteko epea**> Zorionak, Klaudia!** 5 urte jada! Gure etxeko eguzkia, ilargia eta izarra zara. Maite zaitugu, printzesa!**> Oihan Narbaiza** Etxebarria berriztarrak hiru urte egin ditu irailaren 26an. Zorionak morrosko etxekoan partez**> Zorionak, Irati!** Domekan 16 urte egingo dozuz eta! 16 belarri tirakada eta 16 mosu! Ondo ospatu Luhartzeaz!**> Zorionak, Aiora!** Bihar, irailaren 30ean, 8 urte egingo dozuz eta! Mosu handi bat Oier, Peru eta etxeko danen partez.**> Zorionak zure lagun** partez, 26 muxu handi eta txintxoia izan. **Naiade**, holan jarraitu!**> Zorionak, prexiosa!** asko gure zaittuan.**> Zorionak, Laia!** Besarkada potolo bat zure lau urtetxuek ospatzeko!**> Zorionak, Ekain Valier** lagun guztien eta etxekuen partez. Atzo 10 urte egin zenduzen eta. Ondo pasau.**> Garazik** 2 urte ein ebazan pasa dan astien. Zorionak etxekuen partez!Ermodo, 11 · DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
f Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean tarta bat zotz egingo dugu. Zozketan parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrarekin batera.

**> ESKELAK**VII. URTEURRENA  
**ANTON**  
**UBERUAGA ZABALA**  
"Txatue"*7 urte, gaur da egune...  
hegaz aldegin zendune,  
gure Txatue lagune!  
Zugaz igaro genduzan hainbat  
momentu on eta une,  
jasoz zure maitasune,  
estimuz hartzen gendune...  
Geugan gordetzen dogune!***Etxekoak**, Mallabian, 2017ko irailaren 28an**MIREN RODRIGUEZ****Muskuiak, seguruak eta aho-gozoek**

Itsaskiek kalitate handiko proteinak dituzte eta dieta osasungarri bat egiteko garrantzitsuak diren beste mantengai batzuk ere bai. Horrez gain, erabilera asko dituzte sukaldean, modu askotan prestatu daitezkeelako. Oso ondo geratzen dira gatzarekin egosita, lurrunduta, plantxan edo beste osagai batzuekin, hainbat eta hainbat errezetetan. Baina gustagarriak izateaz gain, produktu freskoak ere badira eta segurtasunaren aldetik arrisku bat baino gehiago dute. Erraz galtzen dira eta azkar. Horregatik, segurtasunez dastatu nahi baditugu, beharrezkoa da haiek manipulatzekoan kontuz ibiltzea, higiena zaintzea eta ondo kontserbatzea.

Itsaskiak esku artean ditugunean espezia kontuan hartu behar da, aldatu egiten baitira batetik bestera hartu beharreko neurriak. Ez dira gauza bera zizalaz, nekorak, itsas datilak, karrakelak edo txibiak, esaterako. Muskuiak, muxilak edo erromes maskorak, alegia, maskor bi dituzten itsaskiak uraren kalitatearen arabera izaten dira, ura iragazteko gaitasuna daukatelako. Horrek esan nahi du ura (garbia edo kutsatua) haien bitartez garbitzen dela. Beraz, itsaski hauek jan egiten dituzte itsas belarrek dituzten toxinak eta metatzen egin ditzakete, gizakiontzat arriskutsuak izateraino. Horrez gain, maskor bidun itsaskiek elikaduraren bidez transmititzen diren bakterioak izan ditzakete, birusak eta toxinak.

# Anbotorenlagunak

GAU-TUK emandako burkoa zozkatuko dugu Anbotoren Lagunen artean. Zorte on!

Anboto Komunikabideak  
Tel.: 946 816 558 - www.anboto.org - lagunak@anboto.org

@anboto

@anbotokomunikabideak

AURREKO ASTEKO ZOZKETAREN IRABAZLEA  
**UNAMUNZAGA-ETXEBARRIA HORTZ KLINIKAK** emandako hortz eskuila elektrikoa

**AINARA ARRIZABALAGA SOLAGUREN**

**ZORIONAK!**

# “Domeka goizean bota beharreko txapliguak egiten zaizkit gogorren”

San Migel jaietan entzuten diren txapligu hotsen atzean dago Andoitz Elorriaga azken urteetan

**> AKUILUA** Aitziber Basauri  
**Sanmigeletan buru-belarri sartuta daude Iurretan. Jai giroa non-nahi eta txapligu hotsa goialdeetan. Andoitz Elorriagak atzo jantzi zuen jaietako zapia, eta errosario egunera arte ez du kenduko. Hala ere, ez du lan makala egunotan: txapliguak botatzeko ardua du. Parranda egin ostean, lan gogorra, aitortu duenez.**

**Noiztik sanmigeletan txapliguak botatzen?**  
 Lauzpabost urte izango dira. Aurretik, Jabier Gerediaga arduratzen zen horretaz. Baina, hura hil zenean, neuri pasatu zidaten testigua.

**San Migel bezperan hasten zara. Bai. Montoitik botatzen ditugu txapliguak sanmigel bezperan.**

Horren ostetik, gaurko egunez, San Migel egunez botatzen ditut, dantzari eta agintarien kalejiran. Montoian hasita, herriko agintariak elizara sartu bitartean jaurtitzen ditut; mezan, *Agur Jauna* jotzen dutenean ere bai. Errosario eguneko kalejiran ere berdinean egiten dut.

**Doniel Atxa jartzean ere entzuten dira txapligu hotsak. Bai. Doniel Atxa jartzen duten bitartean ere jaurtitzen ditut. Orduan, kanpandorretik.**

**Azken horiek dira berezienak?**  
 Antzera baten bizi ditut denak. Ez dut bat berezia. Baina, domeka goizean bota beharrekoak egiten zaizkit gogorrenak. Goizeko ajeak ez du askorik laguntzen.

**Parranda egin ostean, lan gogorra... Kalejirara heltzeko ohetik**

altzatu beharra da gogorra, bestela ez dauka ezer.

**Badago halako protokolorik, Dantzarien saioan, adibidez?**  
 San Migel egunez eta Errosario egunez, mutilek banangoa egiten dutenean, ezpatadantzari bakoitzeko txapligu bat jaurtitzen da. Orain, neskei ere bai arratsaldeko saioan, aurrekua eta atzeskua egiten dutenean. Hala ere, ez dago halako protokolo berezirik.

**Ekitaldiren baterako deia dira txapliguak...**  
 Baten batzuek 05:00etan ere botatzen dituzte, baina... bai, zerbait badenaren seinale izaten da txapligu hotsa.

**Inoiz izan duzu sustorik?**  
 Lehenengo urtean izan nuen sustorik handiena. Elizako kanpandorrean pakete bik eztanda egin zuten, beste txapligu baten garragasu hartuta.

**Eta kontatzeko moduko pasarterik?**  
 Ez. Hainbeste urte ere ez daramatzat eta. Diotenez, aurretik egon da ezustekorik, bai. Txapliguak balkoiren bat jotzea, adibidez. Baina, nik neuk ez dut halakorik bizi izan oraindik.

**Zenbat txapligo botatzen dituzu?**  
 Uf! Sanmigel gutzietan zehar? Ez

dakit, baina, asko! Txupinazoren egunean eta jaien azken egunean botatzen dira gehien, baina jaiak iraun bitartean ere asko botatzen dira.

**Irudikatzen duzu jairik txapligurik barik?**  
 Iurretan? Ez!

**Entzun dugu irailaren 28an jartzen duzula jaietako zapia, eta Errosario egunera arte, kendu ere ez. Nola bizi dituzu jaiak?**  
 Jai-giroan! Irailaren 28a eta 29a jai hartzen ditut beti eta, gero, asteburuak aprobetxatzen ditut. Txupinazo eguneko poteoa eta bazkaria ditut gogokoena. Etorriko direnei plaza-girora hurbiltzea esango nieke. Han batzen da jai-giroa, batez ere. Hori du desberdina Iurretak.

**Arreba eta aita txirringularrir taldeko zuzendariak dituzu, eta zu zeu mekanikaria ere bazara. Zaletasuna ala ofizioa duzu txirringularitza?**  
 Denbora asko eskatzen didan zaletasuna, lan moduan hartzen dut-eta. Asteburu eta lasterketa asko dira eta denbora asko eskaintzen diot.

**Eta asto-probak?**  
 Baita. Betidanik ikusi ditut Iurretan, eta lagun talde bat asto batzuek erostera animatu ginen, eta horretan ere ibiltzen gara, asto probak antolatzen eta parte hartzen.

**Noiz arte jarraituko duzu txapligoak botatzen?**  
 Ikusiko dugu, nekatu arte. Ez dut uzteko asmorik, baina betirako aritzekorik ere ez.

## LAUHORTZA

**PAUL BUSTINDUI REVUELTA**

Kazetaria



### Grisen eskala

Iraila hobekien definitzen duen terminoa egunerokotasuna da. Udako oporrak atzean utzita, aste batzuek daramatzagu errutinan murgilduta. Tamalez, korrupzioak, sexu erasoek eta errefuxiatuek egunkariaren eta albistegiaren parrillan jarraitzen dute. Bada, baina, azkenaldian hauei gailendu zaien gai bat: Kataluniak igande honetan egin nahi duen erreferenduma.

Lur azpiko esporetatik udazken loreak hazten diren bezala, Katalunian ere loraldi berri bat bizitzen ari dira. Estatu osoko politika astindu du gaiak, erreferendumaren zilegitasuna kolokan jarri baitu Espainiar estatuak. Demokraziaren mugak norik zapaldu dituen eztabaidan eman dute hilabete osoa. Independentziari baietz esango diotenak eta erreferenduma legearen kontrakoa dela dioten bi blokeak ageri dira, biak elkarren aurka. Hauen bien artean kokatzen diren bestelako postura guztiei ez zaie hitzik eman, tamalez. Eta kataluniar ugari kokatu behar ditugu hemen.

Bai ala ez. A ala B. Ezker ala eskuin. Pragmatismoa ala idealismoa. Menotti ala Bilar do. Txuria ala Beltza. Bizitzan, kontrajarrita dauden bi aukera eskaintzen dizkigute. Askotan mutur bat edo bestea hautatzen eta beste guztiaren aurka egitera bultzatzen gaituzte eta grisak baztertzen ditugu. Etzi Kataluniak 80 urteetan debekatu zaion erabakitze esku bidea izango du. Emaizta baiezkora edo ezezkoa murriztu dute. Ez dago beste aukerarik galdeketa. Agian txuriaren eta beltzaren artean gris tonalitate batzuen falta sumatuko dute. Etorkizunak adieraziko du hori.



# XIX. EUSKAL ELIKADURA ETA ARTISAUTZA AZOKA

Urriak 1 // Andaparape 11:00-14:00

Txahala burduntzi erara / Artisautza / Umeentzako tailerrak

